# NAFARROAKO LANKIDETZAREN III. PLAN ZUZENTZAILEA

2021–2024

Gobierno de Navarra
Departamento de Derechos Sociales
Nafarroako Gobernua
Eskubide Sozialetako Departamentua

AGENDA 2030

17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS

# Aurkibidea


**LABURDURAK ETA AKRONIMOAK** **5**

**AURKEZPENA** **7**

**1. KANPOKO ETA BARRUKO TESTUINGURUA, AURREKO PLANEKO IKASKUNTZAK ETA HURRENGO ALDIRAKO ERRONKAK** **11**

1.1. Eragiten digun testuinguru berria 11
1.2. Lankidetzaren esparru den Garapenerako Agenda Berria 14
1.3. Nafarroan lankidetzara bideratutako laguntza ofizialaren bilakaera zenbakitan 22
1.4. II. Plan Zuzentzailearen ebaluaziotik eratorritako ikaskuntzak eta erronkak 29

**2. IKUSKERA, PRINTZIPIO ETA ZEHAR-IKUSPEGIAK** **33**

2.1. Giza garapen jasangarria 33
2.2. Printzipioak 35
2.3. Zehar-ikuspegiak, estrategia horizontalaren operatibizazioaren aldeko apustua 37

**3. ESPEZIALIZAZIO GEOGRAFIKO ETA SEKTORIALA** **41**

3.1. Espezializazio geografikoa 41
3.2. Espezializazio sektoriala 42

**4. HELBURU OROKORRAK ETA ARDATZ ESTRATEGIKOAK** **49**

4.1. Helburu orokorra 49
4.2. Ardatz estrategikoak 50

**5. ALDI HONETARAKO ESKU HARTZEKO MODALITATEAK ETA TRESNAK** **61**

5.1. Lehen ardatz estrategikorako tresnak 62
5.1.2 Lankidetza teknikorako tresna 63
5.2. Bigarren ardatz estrategikorako tresnak 65
5.3. Hirugarren ardatz estrategikorako tresnak 66

**6. ESKU HARTZEKO ESTRATEGIA HONETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK 69**

6.1. Nafarroako lankidetzako eragileak 70

6.2. Eragileen arteko sinergiak 74

**7. AURREKONTU ESPARRUA 77**

7.1. Gutxi gorabeherako aurrekontua 77

7.2. Garapenerako laguntza ofizialen banaketa ehunekotan 78

**8. PROGRAMA ERAGILEAK, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA 81**

8.1. Programa operatiboak eta planaren segimendua 81

8.2. Ebaluazioa 81

8.3. Emaitzen eta adierazleen esparrua 82

**ERREFERENTZIAKO BIBLIOGRAFIA 91**

Nafarroako Gobernuaren dokumentuak 91

Beste administrazio publiko batzuen dokumentu estrategikoak eta operatiboak 91

Erreferentziako dokumentuak: 92

**IRUDIEN ETA TAULEN AURKIBIDEA 95**

# Laburdurak eta akronimoak

| | |
|---|---|
| **AEA** | Accrako Ekintza Agenda |
| **ACNUR** | Nazio Batuen Erakundearen Errefuxiatuentzako Goi Komisariotza |
| **AECID** | Garapenerako Nazioarteko Kooperazioaren Espainiako Agentzia |
| **EH** | Ekintza humanitarioa |
| **GL** | Garapenerako lankidetza |
| **CEDAW** | Emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko konbentzioa |
| **NGGKEK** | Nafarroako GGKEen Koordinakundea |
| **NGLK** | Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua |
| **GPK** | Garapenerako politiken koherentzia |
| **GE** | Giza eskubideak |
| **GEOI** | Giza eskubideetan oinarrituriko ikusmoldea |
| **GH** | Garapenerako hezkuntza |
| **HGHE** | Herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea |
| **NUKF** | Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa |
| **GG** | Generoa garapenean |
| **GGI-D** | Giza Garapeneko Indizea desberdintasunarekin egokiturik |
| **LGBTI+** | Lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak eta intersexualak |
| **MAEC** | Kanpoko Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioa |
| **NBE** | Nazio Batuen Erakundea |
| **ELGE** | Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundea |
| **MGH** | Milurtekoko garapenaren helburuak |
| **GJH** | Garapen jasangarrirako helburuak |
| **GGKE** | Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak |

| | |
|---|---|
| **GAH** | Gutxien aitzineraturiko herrialdeak |
| **NBGP** | Nazio Batuen Garapenerako Programa |
| **NBIP** | Nazio Batuen Ingurumenerako Programa |
| **SEAD** | Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa |
| **UNRWA** | United Nations Relief and Works Agency (Palestinak Ekialde Hurbilean dituen errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) |
| **NUP** | Nafarroako Unibertsitate Publikoa |
| **LEGL** | Larrialdiko laguntzaren, errehabilitazioaren eta garapenaren arteko lotura |

# Aurkezpena

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak adierazten duenez, politika publiko hori *Nafarroako gizarteak historian zehar eta azpiegitura aldetik pobretutako herrienganako duen elkartasunaren agerkaria da*. Halaber, lege testu horrek ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak onetsiko ditu garapenerako lankidetzaren lehentasunak eta helburuak definituko dituzten hainbat urtetako plan zuzentzaileak. Manu horren arabera eginak dira, batetik, I. Plan Zuzentzailea (2007-2010), eta, bestetik, II. Plan Zuzentzailea (2011-2014). Azken hori 2020ra arte luzatu da isilbidez, azken urteotan izaniko krisi ekonomiko-finantzarioak lankidetza politikaren gainean izan dituen ondorioengatik eta ondoren hasitako prozesuagatik, horren guztiaren eraginez gibelatu egin baita plangintza dokumentu hau egitea, hurrengo orrialdean azalduko dugun moduan.

Prozesu horren ondorioz aurkezten da III. Plan Zuzentzailea, zeinak hainbat berrikuntza biltzen baititu aurreko zikloekin alderaturik. Prozesu horren ondorioz, III. Plan Zuzentzaile hau aurkeztu zen: Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluak aldeko irizpena eman zion 2020ko abenduaren 15ean egindako bileran, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen urte bereko abenduaren 22an, eta, Nafarroako Parlamentuak 2021eko martxoan onestearekin batera, bere izapideak amaitu dira. Plan honek hainbat berrikuntza biltzen ditu aurreko zikloekin alderaturik.

- Hasteko eta behin, espezializazio geografiko eta sektorial handiagoaren aldeko apustua egiten da, Nafarroako Gobernuaren lankidetzaren eragina hobetzeko; lehenbizikoa herrialdeen beharren arabera, eta bigarrena, berriz, 2030 Agendan zehazturiko garapen jasangarrirako helburuen arabera.

- Bigarrenik, kontuan hartzen da administrazioko beste arlo batzuen parte hartzea lankidetza teknikoaren bitartez, eta horrek garapenerako politiken koherentzian izanen luke eragina.
- Interesgarria izaten ahal den beste alderdi bat komunikazioa gehitzea da, bai gizarte sentsibilizazioari begira, bai kontuak emateari begira.
- Horrez gain, beste lankidetza ildo bat irekitzen da Nazio Batuen nazioarteko erakundeekin, eta, horretarako, estrategia aldeaniztun bat formalizatzen da laguntza humanitarioko testuinguruetarantz bideraturik, guztia ere larrialdiaren, errehabilitazioaren eta garapeneko laguntzaren arteko lotura ikusmolde gisa harturik, Nafarroan lankidetzan parte hartu izan duten agentziekin.
- Azkenik, emaitzen esparru bat aurkezten da, aurreko faseetakoak baino adierazle sinple eta errealistagoak dituena, planaren gauzatze mailaren, emaitzen eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, guztia ere Nafarroako esku hartzeen eta lankidetza politikaren aurrerapenen, lorpenen eta ondorioen berri emate aldera.

III. Plan Zuzentzailea zortzi kapitulutan egituratzen da. Lehendabizikoa garapenerako nazioarteko lankidetzaren egungo testuinguruari buruzkoa da, eta nabarmentzekoa da Garapenerako Agenda Berria, nazioarteko komunitateak arlo horretan duen adostasuna jasotzen baitu, bai eta Nafarroako lankidetzaren egungo abiapuntua ere. Bigarrenak, berriz, Nafarroako lankidetzaren esku hartzeetan eta eragileengan izan beharreko ikuspegia (giza garapen jasangarriaren kontzeptua ardatz duena), printzipio gidariak eta zehar-ikuspegiak jasotzen ditu; alde horretatik, garrantzi berezia hartzen du ikuspegi horiek ahalik eta modu erraz eta egokienean operatibizatzeko nahiak. Hirugarrenak erakusten du plan horrek zer lehentasunetan espezializatu nahi duen: esku hartzeko sektoreak eta lehentasun geografikoak. Laugarrena da dokumentu honen kapitulu nagusia; izan ere, hurrengo urteetan jarraitu beharreko estrategia jasotzen du, 2. kapituluan azaldutako zeharkako ikuspegi, printzipio eta ikuspegietatik abiaturik eta aurreko kapituluko lehentasunak operatibizatuz: espezializazio sektorialaren eta geografikoaren aldeko apustu handiagoa egitea, garapenerako hezkuntzaren proposamen berriak eguneratzea eta txertatzea —guztia ere Espainiako GGKEen Koordinakundearen herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailearen definizioaren arabera ulerturik kontzeptualki— eta eragile guztien gaitasunak indartzea. Haren ondoko kapituluak, alde batetik, modalitateei eta tresnei buruzkoak dira, eta, bestetik, lankidetzako eragileen gainekoak. Zazpigarrena aurrekontu esparruari buruzkoa da, modu errealistan sortua eta baliabideen kudeaketa egokia ahalbidetzen duena, lurraldetasunaren, modalitateen eta ekintza eta tresna moten arabera. Azkenik, lankidetzan etengabeko hobekuntza eta kalitatea bilatzearen aldeko apustua egiten da, inpaktu handiagoak lortzeko, eta hor barnean sartzen dira planaren estrategiaren beraren segimendua eta ebaluazioa, bai eta haren esparru operatiboaren nahiz diruz laguntzen diren jarduerena ere. Jarduerak eta

estrategiak indartzeko, nahitaezkoa da informazio zehatza izatea herrialde kideetan zein Nafarroan bertan egiten diren esku hartzeen lorpenen eta aurrerapenen gainean.

## Partaidetza prozesuari buruzko aipamen laburra:

Nafarroako garapenerako lankidetzaren printzipio gidarietako bat da, martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 3. artikuluaren d) letran jasotzen den bezala, *gizarte zibilaren sektore garrantzitsuek parte hartzea garapenaren aldeko lankidetza mamitzen eta gauzatzen*.

Printzipio horri jarraikiz, Nafarroako lankidetzako eragileek parte hartu dute plan hau egiteko prozesuan. Prozesu hori 2016an hasi zen. Urte hartan egin zen, hain justu, II. Plan Zuzentzailearen gauzatze mailaren gaineko balioespena, eta beste plangintza ziklo bat egiteari ekin zitzaion, aurreko zikloan ikasitakoa eta nazioarteko komunitatea hartzen ari den lankidetzaren kontzepzio berria oinarri harturik. Horretarako, lantalde bat sortu zen, eta bertan parte hartu zuen Nafarroako lankidetzako eragileen ordezkariek —Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluan ordezkaritza dutenak—: sindikatuak, CEN, unibertsitateak, NUKF eta GGKEetako ordezkariak. Zazpi lan saiotan adostu zen zirriborroa, baina ez zen adostasunik lortu aurrekontu esparruari zegokionez. Gai horri espezifikoki heltzeko, lan politikorako mahai bat ireki zen, eta hainbat aurrekontu aukera landu zituzten. Baina ez zuten adostasunik lortu aurkeztutako aurrekontu esparruaren gainean. Zirriborroak 2018an partaidetza prozesu bat izan bazuen ere, prozesu hori ez zen amaitu plana onetsi ondotik; izan ere, adostasun falta hori kateatu egin zen legegintzaldiaren amaieran eta ondorengo gobernu aldaketan.

2020an heldu zitzaien berriro ere III. Plan Zuzentzailea behin betiko onesteko lanei, eta beste partaidetza aldi bati ekin zitzaion plana baliozkotzeko eta adosteko. Horrez gain, planaren diseinuaren ebaluazioa egiteko eskatu zitzaion Errealitate Sozialaren Behatokiari, eta, ebaluazio horretatik abiatuta, dokumentua berriz diseinatu da, operatiboagoa izan dadin gauzatze eta emaitza adierazleei dagokienez, inpaktua ebaluatzeko adierazle sorta bat txertatuz eta eduki batzuk berrantolatuz, guztia ere irakurtzeko errazagoa izan dadin. Une oro errespetatu da dokumentu hau egiteko eta parte hartzeko prozesuan adostu zen edukia.

Hori horrela, plan zuzentzaile honen lantaldean aberastutako dokumentu berritu eta eguneratu bat aurkeztu da. Honako hauek osatu dute lantalde hori: Nafarroako

GGKEen Koordinakundeko hiru ordezkarik, erakunde sindikaletako (CCOO eta UGT) bi ordezkarik, CENeko ordezkari batek, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ordezkari batek eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko beste ordezkari batek. Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei ere, izaniko inplikazioagatik eta dokumentu honi egindako ekarpen egokiengatik.

Era berean, eskerrak eman behar zaizkie Nafarroan lankidetzaren alorrean diharduten eragile guztiei, planetako hainbat eremutan populazio behartsuen alde egindako lanagatik eta ahaleginagatik.

# 1.

# Kanpoko eta barruko testuingurua, aurreko planeko ikaskuntzak eta hurrengo aldirako erronkak

## 1.1. Eragiten digun testuinguru berria

Azken 25 urteetan, munduak aurrerapen nabarmena lortu du giza garapenaren adierazle nagusietan. Milurtekoaren Garapen Helburuen inguruan 2015era arte ezarritako agendari esker, garapenerako lankidetzari buruzko nazioarteko adostasuna sendotu da, eta, Nazio Batuen Erakundeak helburu horiei buruz egindako azken txostenean adierazten duen bezala, «milioika bizitza salbatu ditu, bai eta baldintzak hobetu ere hagitzez gehiagorentzat» (Nazio Batuak, 2015a: 4).

Aurrerapen horiek gorabehera, Milurtekoaren Garapen Helburuek agenda osatugabea izan dute, eta, gainera, neurri batean baino ez dira bete helburu horiek[1]; errate baterako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako helburuek argi-ilunak dituzte. Hori dela eta, aurrerapen horiek mehatxu berriei egin behar diete aurre, hala nola segurtasunik ezari eta indarkeria areagotzeari, desberdintasunak zabaltzeari eta ingurumenak okerrera egiteari; era berean, munduko osasunaren egoera korapilatu

---

1. Milurtekoaren Garapen Helburuen betetze mailari eta 2015era arteko garapenerako lankidetzaren balantzeari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus: Giza Garapenaren 2016ko Txostena eta Milurtekoaren Garapen Helburuen gaineko 2015eko Txostena.

egin da zenbait epidemiagatik —hala nola ebola Mendebaldeko Afrikan eta zika Latinoamerikan—, gaixotasunen patroietan izandako aldaketengatik eta, berriki, COVID-19ak mundu zabalean izaniko inpaktuagatik.

Bestalde, klima aldaketa bizkortzen ari da, eta eragin kaltegarriak ditu munduko komunitate askorentzat eta askorentzat. Nazio Batuen idazkari nagusiaren arabera, «munduko tenperaturak gora egiten jarraitzen du batez beste, glaziarrak murrizten ari dira eta permafrosta, berriz, txikitzen. Milioika pertsona eta bilioika aktibo arriskuan daude itsas mailaren igoeragatik eta klimaren beste asaldura batzuengatik» (Guterres, 2017). Areagotzen ari dira klima aldaketarekin loturiko hondamendi naturalak. Fenomeno horiekin batera, baliabide naturalen kontrolik gabeko ustiapenak habitatak suntsitzea, biodibertsitatea galtzea eta basoak modu indiskriminatuan moztea eragin du. Halaber, ondorio hagitz larriak sortu ditu gizakien osasunean eta elikagaien segurtasunean munduko leku askotan, eta gutxi gorabehera 25-30 milioi pertsona migratzea ekarri du (Redclift eta Grasso, 2013), bai eta ingurumen gatazka berriak ere.

Besteak beste, Siria, Yemen, Afganistan, Irak, Hego Sudan, Nigeria eta Saheleko iraupen luzeko gatazken gorakadak eta Palestinan, Mendebaldeko Saharan eta Aintzira Handietan egoera kronikoen jarraipenak krisi humanitarioak areagotzea ekarri du, giza eskubideen urraketa masiboak eta nahitaezko migrazioaren fenomeno dramatikoa areagotuz[2]. Nahitaezko migrazioak berekin dakar ehunka pertsonak beren bizia arriskuan jartzea itsasoan, Europara heldu nahian. Asko bidean hiltzen dira, eta itsasoa zeharkatzea lortzen dutenen gehienak egoera penagarri batean bizi dira gero kanpalekuetan. Krisi humanitarioaren eta lekualdatzeen egoera orokor horrek inpaktu bereziki gogorra izan du emakumeen eta nesken bizi baldintzetan, eta, ondorioz, ugaritu egin da haien aurkako indarkeria. Hori guztia dela eta, giza eskubideen egoerak okerrera egin du munduan azken urteotan (Amnistia Internazionala 2017, Human Rights Watch, 2017). Populismo politikoaren goititzeak eta aipaturiko gatazka armatuen eta haien konplexutasuna areagotzeak ekarririko egoeran, arriskua dago «jada bermaturik ez egoteko 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean artikulatutako balioak» (Amnistia Internazionala, 2017:13). Giza eskubideen urraketa hori bereziki ikus daiteke emakumeen kasuan, batez ere sexu eta ugalketa eskubideetan munduko eremu askotan izandako atzerakada kontuan hartzen baldin badugu (AWID, 2017).

Batek baino gehiagok adierazten du (Oxfam, 2015, NBGP, 2016, Guterres, 2017) desberdintasunak goititzea dela gaur egungo munduko arazo nagusia. 2008an

2. Azken hirurogeita hamar urteetan aurrekaririk gabeko lekualdatu eta errefuxiatu kopuruak izan dira. Gaur egun, 60 milioi pertsonak baino gehiagok desplazatu behar izan dute nahitaez gatazka armatuen eraginez (Nazio Batuak, CICR, 2016).

lehertu zen mundu mailako krisiak eta estatu gehienetan martxan jarritako austeritate neoliberaleko neurriek agerian utzi dituzte nagusi den garapen sistemaren desoreka globalak. Frustrazioa, alienazioa eta ezegonkortasuna eragiten duten faktoreen artean ageri dira, konparazio batera, garapen desorekatua, krisialdi humanitarioak areagotu eta eskubideak urratu izana, eta klima aldaketaren efektuak bizkortzea (Guterres, 2017). Gaur egun, planetako pertsona aberatsenen %1ek gainerako %99k baino aberastasun handiagoa du, eta hori oztopo garrantzitsua da giza garapen jasangarria lortzeko bidean.

Bilakaera desberdin horren adibide da COVID-19aren pandemiak eragindako osasun krisiaren eztanda. Pandemiak, mundu mailako osasun premia ez ezik, ondorio sozioekonomiko larriak ere sortu ditu; izan ere, nahiz eta munduko herrialde guztiei eragin, inpaktua handiagoa da garapen bidean dauden herrialdeetan. Herrialde horiek desberdintasun baldintzetan egiten diote aurre koronabirusaren aurkako borrokari, indar apaleko osasun sistemekin eta kutsadura prebenitzeko testuinguru ez hagitz onuragarriekin, edateko ura oro har eskuratzeko biderik gabe, baldintza osasungintzetan eta pilaturik, eta abar. Horrez gain, herrialde gehienetan egindako konfinamenduak larriagotu egin ditu pobrezia egoerak, pertsona askok ezin izan baitituzte lortu jarduera informalen mende dauden diru sarrerak, edo birusaren eraginpean jarri behar izan dira jarduera horiek egiteko, biziraupen ekonomiak beharturik. Krisi hori bereziki suntsitzailea izan daiteke errefuxiatu eremuetan bizi diren eta arrisku faktore horien eraginpean dauden herritarrentzat, kontuan izanik badituztela inguruan beste gaitz batzuk ere, hala nola hiesa, tuberkulosia edo malnutrizioa. NBGPek adierazten duen modura, «Munduko Bankuak ohartarazi zuen litekeena dela 40 eta 60 milioi pertsona bitarte muturreko pobreziara igarotzea aurten, eta Saharaz hegoaldeko Afrika litzateke eskualde kaltetuena, eta ondoren Hego Asia» (2019). Ildo horretan, NBEk premiazko erantzun sozioekonomikoa eskaintzeko estrategia bat eskaintzen du, bost zutabe kritikotan oinarriturik: osasun zerbitzuen eta sistemen babesa; babes soziala eta oinarrizko zerbitzuak; enpleguak, enpresa txiki eta ertainak eta ekoizpen eragile ahulenak babestea; erantzun makroekonomikoa eta lankidetza aldeaniztuna; eta kohesio soziala eta erresilientzia komunitarioa.

Horregatik, egokitzat jotzen da nazioarteko hiru erantzun ildo nagusiak hartzea plan honetan: (1) **bizitzak salbatzea**, osasun sistema nazionalak indartuz; (2) **pertsona ahulenak babestea** eta haien eskubideak eta bizibideak berreskuratzea; eta (3) **sistema sozioekonomikoak zaintzea**, ekoizpen sarea berreskuratzea eta gobernantza eta harremanak indartzea, ikuspegi horizontalago batetik eta 2030 Agendak biltzen duen giza garapen jasangarriaren ikuspegitik.

## 1.2. Lankidetzaren esparru den Garapenerako Agenda Berria

Egoera horren aitzinean, nazioarteko komunitatea hainbat urtez aritu da lanean Milurtekoaren Garapen Helburuetako lorpenekin jarraitzeko garapen agenda berri bat eraikitzen, eta, aldi berean, haien hutsuneak estaltzen ditu, eta garapen erronka berriei aurre egiten. Agenda berri horrek *giza garapen jasangarriaren* kontzeptuaren zentraltasunari eusten dio, eta garapenerako nazioarteko lankidetzaren egungo esparrua da. Hauek dira agenda horren funtsezko ildoak:

1. IRUDIA. **Nazioarteko garapenerako lankidetzarako egungo arkitekturaren dokumentuak**




- Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda.
- Garapenaren Eraginkortasun Agenda.
- Garapenaren alorreko Europako Itun berria, «gure mundua, gure duintasuna, gure etorkizuna»
- Gizateriaren aldeko Agenda.

*Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda* ikuspegi integral gisa eratu da garapenaren erronkei heltzeko eta «pobreziarik, goserik, gaixotasunik eta gabeziarik gabeko mundu baterantz lan egiteko, zeinean bizimodu guztiak aitzinatzen ahalko baitira; beldurrik eta indarkeriarik gabeko mundu bat; alfabetatze unibertsala izanen duen mundu

bat, maila guztietan kalitatezko hezkuntza, osasun arreta eta gizarte babesa lortzeko sarbide ekitatibo eta unibertsala eskainiko duena, eta ongizate fisiko, mental eta soziala bermatuko dituena» (Nazio Batuak, 2015). Garapen jasangarriaren gizarte, ingurumen eta ekonomia dimentsioak orekatu nahi ditu, gobernantza eta bakearen eraikuntza txertatuz. Garapen jasangarria lortzeko 17 helburu jasotzen ditu, bai eta horien guztien artean funtsezko lotura duten 169 jomuga ere; beraz, osorik aplikatu behar da, eta ez modu selektiboan. Garapen jasangarriko helburuetarantz egiteko bidea finantzatzeko, garapenerako finantzaketari buruzko azken gailurrak **Addis Abebako Ekintza Agenda** adostu zuen, «aplikazio paradigma berri gisa, bitarteko finantzarioak eta ez-finantzarioak modu eraginkorrean baliatzearen bidez, eta lehen lerroan paratuz ekintza nazionala eta politika bideragarriak» (Europako Batzordea, 2017).

2. IRUDIA. **2030 Agendako 5 P-ak eta garapen jasangarrirako 17 helburuak**



Aipatzekoa da agenda horrek aukera bikaina eskaintzen duela pobrezia desagerrarazteko eta garapen jasangarrirako erronkei heltzeko, elkarrekin loturik dauden aldetik, eta, haren izaera unibertsala dela medio, nabarmendu behar da guztiontzako garapen jasangarria ahalbidetuko duen eraldaketa garrantzitsua izan nahi duela. Nazioartean, herrialde guztiek zaindu behar dute gainerako politikek ere adostutako helburu globaletarantz aitzina egiten laguntzen dutela —ez lankidetza politikek bakarrik—, edo, behintzat, ez dituztela oztopatzen. Hori dela eta, beste aukera bat da ***garapenerako politiken koherentziarako***; izan ere, bere adierarik osoenean, ulertzen baita erakunde jakin baten ekintzen multzoak giza garapena hartu behar duela politika publikoen lehentasuntzat, eta zeharkakotasunez bildu politika horietan (Millan ***et al.***, 2015)[3].

Egungo krisi globalaren testuinguruan, 2030 Agendak garrantzi berezia hartzen du, eta beharrezko ibilbide orri bihurtzen da mundu konplexu eta interdependente honek heldu beharreko erronkei erantzuteko. Haren gaineko ulermenezko irakurketa egin behar da, tokiko eta eskualdeko garapen eragileek bereganatu ahal izan dezaten[4], garapen jasangarriko helburuek tokian tokikotasunera lurreratzeko ahaleginak eginez. Lokalizazioaren kontzeptuak, tokiko eta eskualdeko gobernuek garapen jasangarriko helburuei laguntzeko moduak ez ezik, helburu horiek garapen politika deszentralizatuetarako esparru bihurtzeko modua ere biltzen du (Global Taskforce, 2016). Tokiko eta eskualdeko administrazioek, herritarrengandik hurbilago dauden aldetik, egiteko bereziki garrantzitsua dute garapen jasangarriko helburuei buruzko sentsibilizazioan, gizarte zibileko erakundeekin elkarturik. Herritarren parte hartzea funtsezko elementua da garapen jasangarriko helburuen gaineko tokiko agendak eraikitzeko. Garrantzitsua da, halaber, eragin estrategiak lantzea, erakunde deszentralizatuek parte hartu ahal izan dezaten eta 2030 Agenda ezartzeari buruzko eztabaidan lagundu dezaten.

Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak azterlan hori egiteko sailen arteko batzorde bat sortzeko akordioa lortu zuen 2017ko martxoaren 15ean, 2030 Agendak dakartzan erronkei aurre egiteko aplikatzen ari diren politikak zehazteko azterlan bat egitea eskatzen zuen Parlamentuaren agindua aintzat hartuta. Batzorde horren barruan, Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean ezartzeari buruzko txostena egin zen. Plan horretan, jasotzen da garapen jasangarrirako helburuek, haien xedeek eta adierazleek zer orientabide dituzten Nafarroako barne politiketarako zein garapenerako lankidetzarako.

---

3. Garapenerako politiken koherentzia kontzeptua aztertzeko, ikus ELGEren webgunea: http://www.oecd.org/pcd/ bai eta Europar Batasunaren garapen politiken gaineko ataria ere: https://ec.europa.eu/europeaid/policies/coherencia-de-las-politicas-en-favor-del-desarrollo_es

4. NBGP, UN Habitat eta toki eta eskualdeko agintariek osaturiko Global Taskforce buru dituen talde bat, Europar Batasuneko Eskualdeetako Lantaldearekin batera, aitzina egiten ari da 2030 Agendaren helburuak lortzeko estatuz azpiko testuinguruak kontuan hartzeko prozesuarekin.

**Nafarroako lankidetzarako inplikazioak**

a. Nafarroako lankidetzak 2030 Agenda hartu behar du kontuan bere ildo estrategiko sektorialak ezartzeko erreferentzia esparru gisa.

b. 2030 Agenda Nafarroan ezartzeko plana da gure komunitatean Garapenerako Politiken Koherentziarako esparru egokiena.

Gero eta lotura estuagoa dago 2030 Agendaren eta *Garapenaren Eraginkortasunaren Agendaren* artean, zeinak Pariseko Adierazpena (2005), Accrako Ekintza Agenda (2008) eta Busango Adierazpena (2011) baititu oinarrian. Parisko Adierazpenean adosturiko bost printzipioak (*jabetzea, harmonizazioa, lerrokatzea, emaitzetan oinarritutako kudeaketa eta elkarren arteko erantzukizuna*) garrantzi handiko elementuak dira nazioarteko garapen agendan, eta, Accrako Ekintza Agendari dagokionez, bat datoz gizarteko erakundeek eta toki nahiz eskualdeko administrazioek jabetze demokratikoaren kontzeptuaren alde egiteko duten gaitasunarekin eta herritarren tokiko parte hartzerako garapen prozesuekin. Azken urteetan, garapenaren eraginkortasunaren agendak eboluzio positiboa izan du, 2030 Agendarekin bat eginez. Horrez gain, kohesioa ezartzen du giza eskubideen, genero berdintasunaren eta diskriminazio mota guztien aurkako borrokaren esparruko nazioarteko konpromisoekin (*Global Partnership for Effective Development Co-operation*, 2016). Gizarte zibileko erakundeek ere eragina izan dute eboluzio horretan Istanbulgo Printzipioei esker, zeinek giza eskubideen eta genero berdintasunaren alorreko eskubideen sustapena azpimarratzen baitute, garapenaren eraginkortasunaren aldeko lanaren oinarri moduan (*Open Forum for CSO Development Effectiveness*, 2010).

3. IRUDIA. **Parisko Adierazpenaren printzipioak**




Garapenerako lankidetzako politiken eta sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko, bai eta garapenerako aliantza egokiak sustatzeko ere, Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen Garapenerako Laguntza Taldeak parekideen azterketak egiten ditu garapen bidean dauden herrialdeetan pobreziaren murrizketan eta garapen jasangarrian inpaktu handiagoa lortze aldera, eta, hala, herrialde kidearen jarduna ebaluatzeko eta politikak berak zein haien ezarpena balioesteko. Ikuspegi integratua eta sistemikoa hartzen dute aztertutako herrialde parekideko garapenerako lankidetzako eta laguntza humanitarioko jardueren gainean. Gure herrialdearen lankidetzari buruzko azken txostena 2016an egina da (Espainiako Lankidetzaren gaineko parekideen azterketa), eta lankidetza deszentralizatua planifikatzeko gomendio garrantzitsu batzuk jasotzen ditu.

**Nafarroako lankidetzarako inplikazioak**

Parekideen azterketaren gomendioekin bat etorriz:

a. Lehentasunezko sektoreak identifikatu behar dira, eta herrialde kideetako efektuak aztertu, jarraipena egin eta horiei buruzko kontuak eman.

b. Garapenerako laguntza ofizialen (GLO) baliabideak gehiago bideratu behar dira hartzaile nagusietara; alegia, i) herrialde eta lurralde lehenetsiak, eta ii) funtsezko bazkide aldeaniztun estrategikoak.

c. Emaitzetan oinarritutako erabakiak hartzeko aldaketa bizkortzeko, tresna egokiak garatu behar dira emaitzen jarraipena eta analisia egiteko.

d. Laguntza sendoari eusteko eta Nafarroako gizarteak garapenerako lankidetzarekiko dituen sentsibilizazioa, kontzientzia kritikoa eta konpromisoa sustatzeko, eguneratu egin behar da herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea (HGHE).

*Garapenari buruzko Europako Itun berria* ere 2030 Agenda berrira egokitu da, eta planteamendu komun baten esparrua emateko helburua planteatzen du, zeinean bilduko baita EBko erakundeek eta estatu kideek aplikatuko duten garapen politika. Adostasun berriaren asmoa da 2030 Agenda aplikatzea «bere politiken barneko eta kanpoko alderdi guztietan, planteamendu global eta estrategiko batean, garapen jasangarriaren hiru dimentsioak modu orekatu eta koherentean integratuz eta garapen jasangarriko helburuen arteko loturei eta nazioarteko eta mundu mailako ekintza nazionalen eragin zabalenei helduz» (Kontseilu Europarra, 2017:3). Hauek dira garapen politikaren elementu nagusiak: elkarrizketa politikoa, genero berdintasuna, giza eskubide guztien sustapena, inklusioa eta partaidetza, diskriminaziorik eza, berdintasuna eta ekitatea, gardentasuna eta erantzukizuna. Lerrokaturik dago Garapenaren Eraginkortasun Agendarekin, eta gizarte zibileko erakundeen partaidetza aktiboaren alde egiten du. 2030 Agendak aldarrikatzen duen «inor gibelean ez uzteko» leloaren ildotik, arreta berezia eskainiko zaie egoera txarrean, ahulean edo bazterturik dauden pertsonei, bereziki haurrei, adinekoei, ezintasunak dituzten pertsonei, LGTBI+ kolektiboko kideei eta herri indigenei.

**Nafarroako lankidetzarako inplikazioak**

a. Generoaren eta giza eskubideen ikuspegiek zehar-elementu estrategiko izaten jarraitu behar dute.

b. Nafarroako gizarte antolatuaren parte hartzeak lehentasuna izaten jarraitu behar du lankidetza politikaren ezarpenean eta gobernantzan.

c. Herrialde elkartuetako pertsonarik ahulenek izan behar dute Nafarroako garapenerako laguntza ofizialen hartzaile nagusiak.

Ekintza humanitarioaren esparruan, nazioarteko komunitateak erantzun berriak bilatu ditu krisi humanitarioen areagotzea ikusirik. 2016an Istanbulen egindako lehen Nazioarteko Goi Bilera Humanitariotik sortutako konpromisoek ere ekintza humanitario berritua egiteko espazioak irekitzen dituzte. Konpromiso horiek beren egiten dute Nazio Batuetako idazkari nagusiak aurkeztutako *Gizateriarako Agenda*, eta gatazka armatuak prebenitzea da nazioarteko komunitatearen lehen erantzukizuna. Horrek erran nahi du hainbat alderdi barnean hartzea, hala nola gatazken analisia, bitartekaritza lana, gatazken prebentzio goiztiarra (giza eskubideen urraketak identifikatzea barne) eta gizarte inklusiboetan eta hauskortasunaren murrizketan inbertitzea garapenean esku hartzeko ekintzen barruan eta gerrak zein gatazkak prebenitzeko funtsezko bide gisa.

Era berean, nazioarteko zuzenbide humanitarioa eta giza eskubideen errespetua indartu nahi ditu ekintza humanitarioaren funtsezko ardatz gisa, bereziki azpimarratuz, batetik, giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketak salatzeko mekanismoak eta, bestetik, eragile humanitarioek kontuak ematea. Halaber, bere egin du 2030 Agendaren leloa —hau da, «inor gibelean ez uztea»—, emakumeen ahalduntzea barnean hartzen dela ziurtatzeko, esparru politiko, sozial, ekonomiko eta zibiletan bete-betean parte hartuz. Eraldaketa estrategiko gisa, Gizateriarako Agendak garapenaren eta ekintza humanitarioaren arteko banaketa gainditzearen alde egiten du espezifikoki. Eraldaketa horretarako ardatz gisa, eragile humanitarioen eta garapen eragileen arteko analisi komun bat identifikatzen du, honako hauek ardatz harturik: arriskua eta erresilientzia, epe laburrerako eta luzerako baterako plangintza, lidergo prozesuak hobetzea eta finantzaketa mekanismo holistikoagoak (FAO, 2017).

Era berean, Grand Bargain edo akordio handian harturiko konpromisoek laguntza humanitarioaren eraginkortasuna bilatzen dute hamar ardatzen inguruan: laguntza humanitarioaren ikuspegia tokiko eragileen eta onuradunen gardentasun eta parte

hartze handiagorantz bideratzea; eskudiru transferentziak sustatzea; beharrizanen ebaluazioa hobetzea; kudeaketa prozedurak eta kostuak sinplifikatzea eta harmonizatzea; txostenak aurkezteko betekizunak; epe luzerako hainbat urtetako plangintza; laguntza humanitarioaren eta garapenaren arteko lotura, ekarpen finalisten kaltetan; eta, azkenik, laguntza humanitariorako funtsen esleipena areagotzea.

**Nafarroako lankidetzarako inplikazioak**

a. Agenda berri horren arabera berrikusi behar da ekintza humanitarioa.

Gainera, gaur egungo pandemia globalaren testuinguruan, agerian geratu dira berriz ere sistema sozioekonomiko desorekatuaren ahuleziak, ez baita gauza pertsonen beharrei erantzuteko, eta, hori horrela, beharrezkoa da dauden erronkei ikuspegi eraldatzaile batetik heltzea, ikuspegi lokal-global, integratu, interkonektatu eta koordinatu batetik.

Horixe da 2030 Agendak eskaintzen digun ikuspegia planteatutako erronkei heltzeko, eta esparru horretatik egiten zaio aurre, lankidetza deszentralizatutik. Autonomia erkidego guztiek eta lankidetza funtsek batera jasotzen dituzte *De la crisis se sale cooperando* dokumentuak bilduriko proposamenak —Espainiako lankidetzak COVID-19ari erantzuna emateko prestaturikoa da agiri hori—. Proposamen horiek, halaber, Europar Batasunak koronabirusari emaniko erantzun orokorrarekin lerrokaturik daude: bizitzak salbatzea eta osasun publikoko sistemak indartzea; eskubideak eta gaitasunak babestea eta berreskuratzea; eta sistema sozioekonomikoak zaintzea eta eraldatzea, produkzio sarea berreskuratzea eta gobernagarritasuna indartzea.

Nafarroako lankidetzak bat egin zuen estrategia horrekin, eta, bertan jasota dagoen bezala, Espainiako lankidetza osoak heldu behar die lehentasun horiei. Hartara, modu koherente eta integratuan konbinatuko dira lankidetzako eragile guztien eskura dauden aliantza, tresna eta modalitate guztiak, bai ekintza humanitarioaren eremuan, bai garapenaren eremuan.

**Nafarroako lankidetzarako inplikazioak**

a. Tresnak bideratu behar dira COVID-19aren aurreko erantzun estrategiarekin loturiko lehentasunetara.

## 1.3. Nafarroan lankidetzara bideratutako laguntza ofizialaren bilakaera zenbakitan[5]

Azken hamar urteotan, Nafarroako Gobernuak lankidetzarako bi plan zuzentzaile izan ditu. Horiek izan dira garapenerako lankidetzako jardueretarako hainbat urtetarako plangintza erreminta. I. Plan Zuzentzailea 2007tik 2010era bitartean egon zen indarrean, eta bigarrena, berriz, 2011tik 2014ra. Hala ere, gaur egunera arte hedatu dira bigarren plan horren planteamenduak eta praktika.

II. Plan Zuzentzaileak 4. irudian agertzen den aurrekontu bilakaera izan du: 2011n garapenerako laguntza ofizialen zenbatekoa 18,3 milioi euro izatetik 2019an 9,4 milioi euro izatera igaro da. 2014an izan zuen gutxien, 4 milioi eurorekin. Urte arteko aldakuntzari dagokionez (5. irudia), 2015ean inflexio puntu bat ageri zaigu, %2 soilik berreskuratu baitzen; hurrengo urteetan, bistan geratzen da susperraldi ekonomikoaren joera. Inflexio hori hagitzez ere garrantzitsuagoa da Nafarroako Gobernuaren Gastuen Aurrekontuaren hazkundeari dagokionez (5. irudia).

4. IRUDIA. **Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizialen bilakaera II. Plan Zuzentzailean**




5. Atal honek 2011-2019 aldiko Kudeaketa Memoriari eta II. Plan Zuzentzailearen ebaluazioari egiten die erreferentzia, zeinak eskuragarri baitaude Nafarroako Gobernuaren webgunean, garapenerako lankidetzaren atalean.

5. IRUDIA. **Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizialen urte arteko aldakuntzaren bilakaera eta Nafarroako Gobernuaren gastu aurrekontuarena**




1. TAULA. **Garapenerako laguntza ofizialen bilakaera II. Plan Zuzentzailean (zifrak milioi eurotan)**

| **Aldia: II. Plan Zuzentzailea** | **2011** | | **2012** | | **2013** | | **2014** | | **2015** | | **2016** | | **2017** | | **2018** | | **2019** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Hasierako kreditua** | **E** | **H** | **E** | **H** | **E** | **H** | **E** | **H** | **E** | **H** | **E** | **H** | **E** | **H** | **E** | **H** | **E** | **H** |
| A. Nafarroako Aurrekontu Orokorrak | 4.188 | 3.968 | 3.837 | 3.625 | 3.837 | 3.679 | 3.837 | 3.803 | 3.837 | 3.914 | 4.005 | 3.974 | 4.061 | 3.983 | 4.164 | 4.180 | 4.312 | 4.396 |
| B1. Estatuarendako ekarpenak | 523 | 498 | 534 | 520 | 551 | 571 | 498 | 555 | 520 | 617 | 534 | 540 | 494 | 511 | 542 | 530 | 545 | 548 |
| B2. Toki erakundeendako transferentziak | 267 | 253 | 254 | 254 | 248 | 255 | 248 | 257 | 251 | 261 | 269 | 269 | 276 | 274 | 293 | 292 | 306 | 303 |
| B3. Toki erakundeendako kapital transferentziak | 89 | 38 | 56 | 45 | 28 | 25 | 27 | 20 | 29 | 19 | 25 | 17 | 51 | 30 | 66 | 45 | 74 | 77 |
| B4. Gastu fiskalak | 342 | 311 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (Finantza gastuak) | (61) | (57) | (72) | (72) | (101) | (107) | (127) | (104) | (121) | (108) | (104) | (103) | (98) | (90) | (91) | (96) | (75) | (75) |
| *B. Guztizko partziala (B1-B4)* | *1.223* | *1.102* | *845* | *820* | *827* | *853* | *774* | *834* | *801* | *899* | *829* | *827* | *822* | *816* | *991* | *963* | *1.000* | *1.003* |
| C. Nafarroako Gobernuaren aurrekontua (A-B) | 2.964 | 2.866 | 2.992 | 2.804 | 3.009 | 2.826 | 3.062 | 2.968 | 3.036 | 3.015 | 3.175 | 3.142 | 3.239 | 3.239 | 3.173 | 3.173 | 3.313 | 3.393 |
| D. Garapenerako laguntza ofiziala (Nafarroako Gobernuaren GLO) | 20.305 | 18.263 | 16.604 | 14.378 | 5.457 | 5.26 | 4.238 | 4.059 | 4.329 | 4.145 | 5.414 | 5.518 | 7.044 | 7.137 | 8.313 | 8.277 | 9.411 | 9.377 |
| *GLOaren ehunekoa/ Nafarroako Gobernuaren aurrekontua (D/C)* | *% 0,68* | *% 0,64* | *%0,55* | *% 0,51* | *% 0,18* | *% 0,19* | *% 0,13* | *% 0,14* | *% 0,14* | *% 0,14* | *%0,17* | *% 0,18* | *% 0,22* | *% 0,22* | *% 0,26* | *% 0,26* | *% 0,28* | *% 0,28* |

**E:** Egindako gastua; **H:** Haiserako kreditua.

Lehendabiziko taulan ikus daitekeenez, datu erlatiboetan eta gauzatutako aurrekontuari dagokionez, garapenerako laguntza ofizialen bilakaera Nafarroako Gobernuaren 2011ko gastuen aurrekontuaren %0,65etik 2014ko eta 2015eko %0,14ra bitartekoa izan da. Susperraldia 2016an (%0,18) eta 2017an (%0,22) gertatu zen, eta 2019an %0,28ra iritsi zen. Kalkulu horiek guztiak Foru Parlamentuaren 1994ko urriaren 25eko Ebazpenari jarraikiz egin dira, zeinaren arabera Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren gaineko garapenerako laguntza ofizialen portzentajea Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastuen guztizko kopurutik deskontatzen baita: Estatuari egindako ekarpena eta toki erakundeei egindako transferentziak (2011n gastu fiskalak ere deskontatu ziren, aurreko ekitaldietan bezala; 2012tik aitzina ez dira deskontatzen, desagertu egin baita aurrekontu kontzeptu hori). Gastu finantzarioei dagokienez, nahiz eta aipaturiko ebazpenean jaso deskontatu egin behar direla, koadroan parentesi arteko urteko zenbatekoa baino ez da adierazten, eta ez dira deskontatzen, garapenerako laguntza ofizialak kalkulatzeko irizpide BERRIAREN arabera.

2011-2019 aldian, Nafarroako Gobernuak 76.453.607 euro bideratu ditu orotara garapenerako laguntza ofizialetan; administrazio kostuei dagokien zatia 2.715.084 € izan zen, eta garapenerako laguntza ofizialetarako emaniko 73.738.523 euroak Nafarroako lankidetzako eragileen artean banatu ziren, orotara 129 erakunderen proiektuak finantzatzeko.

2. TAULA. **Garapenerako laguntza ofizialetako gastuaren banaketa entitateen arabera, 2011-2019 aldia**

| Entitate mota | Entitate kopurua | Zenbatekoak | Esku hartzeen kopurua |
|---|---|---|---|
| Elkarteak | 55 | 32.443.862 € | 429 |
| Fundazioak | 39 | 35.064.767 € | 365 |
| GKEEen elkarteak | 25 | 5.407.805 € | 66 |
| Erlijio entitateak | 5 | 521.953 € | 15 |
| Administrazio publikoa | 1 | 300.136 € | 13 |
| **Guztira** | **125** | **73.738.523 €** | **888** |

Aldi horretan diruz lagundutako modalitateen araberako **gastuaren banaketari** dagokionez (guztira 888 esku hartze), programak eta proiektuak finantzatu dira batez ere (funtsen %43 eta %42, hurrenez hurren). Halaber, %6 ekintza humanitarioko esku hartzeetara eta %5 garapenerako hezkuntzara bideratu da.

3. TAULA. **Garapenerako laguntza ofizialetako Nafarroako gastuaren banaketa 2011-2019 aldian**

| Modalitatea / tresna | Esku hartze kopurua | Zenbatekoak | % |
|---|---|---|---|
| Ekintza humanitarioa | 47 | 4.570.295 | % 6,2 |
| Lankidetza ekonomikoa | 613 | 64.147.698 | % 87 |
| Mikroekintza | 67 | 1.494.590 | % 2 |
| Programa | 164 | 31.666.993 | % 43 |
| Proiektua | 382 | 30.986.115 | % 42 |
| Lankidetza teknikoa, prestakuntza eta ikerketa | 22 | 1.194.366 | % 1,6 |
| Garapenerako hezkuntza | 206 | 3.826.164 | % 5,2 |
| Garapenerako hezkuntza formala eta ez-formala | 149 | 2.697.900 | % 3,7 |
| Sentsibilizazio ekintza | 57 | 1.128.264 | % 1,5 |
| **GUZTIRA** | **888** | **73.738.523** | **% 100,0** |

**Modalitateak eta tresnak** kontuan hartuz gero, 2011-2019 aldian **382 lankidetza proiektu onetsi dira urtean**, eta, guztira, 30.986.115 € baliatu dira egikaritutako aurrekontutik.

Espezializazio eta kontzentrazio handieneko tresna **garapenerako lankidetzako hainbat urtetarako programak dira**; guztira, 31.666.993 € erabili dira horretarako. Taulan 164 esku hartze agertzen dira, eta hainbat urte sari zenbatzen dira, honako hauei dagozkienak: 2009an emandako 16 programa; 2010ean emandako 8 programa; 2011n emandako 18 programa (hiru urterako emandakoak); 2014ko deialdiko 8 programak[6] (2015ean eta 2016an jarraitu zutenak); 2017ko deialdiko 11 programak (hiru urterako emandakoak) eta 2018ko deialdiko 8 programa (hiru urterako emandakoak).

**Banaketa geografikoari** dagokionez, 51 herrialdetan egin dira garapenerako lankidetzako esku hartzeak. Laguntzen % 82 guztira 12 herrialdetan dago kontzentraturik, zeinetan 483 jarduera gauzatu baitira: Peru da nagusi, 101 esku hartzerekin. Gainera, eskualdeka aztertuz gero, ikusiko dugu funtsen % 59 Latinoamerikara bideratu direla (% 29 Erdialdeko Amerikara eta % 30 Hego Amerikara), eta sei herrialdetan kontzentratu dira: El Salvador, Guatemala, Nikaragua, Bolivia, Kolonbia eta Peru. Gainerakoei dagokienez, % 26 Afrikara eta % 15 beste hainbat tokitara (Ekialde Ertaina, Asia, beste eremu batzuk eta Nafarroa[7]).

6. 2014, 2015 eta 2016an, programen deialdiaren xedea desberdina izan zen: 2014ko deialdian, onetsitako programak lehen urterako bakarrik laguntzen ziren diruz, eta proiektu bera hurrengo urteetako deialdietara ere aurkeztu zitekeen. Horren arabera, 2014an eta 2015ean diruz lagundutako proiektuei eman zaie lehentasuna 2015eko eta 2016ko deialdietan.

7. Nafarroaren kasuan, Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko ekintzetan eginiko gastua da.

Foru Komunitateko Garapenerako eta Sentsibilizaziorako Hezkuntzako ekintzei dagokien %6 kenduta, hamasei herrialdek milioi bat eurotik gorako finantzaketa jaso dute 2011-2019 aldian.

6 IRUDIA. **Nafarroako garapenerako laguntza ofizialen banaketa eskualdeen arabera, 2011-2019 aldia**




II. Plan Zuzentzailearen indarraldian (2011tik 2019ra), Nafarroako lankidetzak honako **sektore** hauek izan ditu ardatz: osasuna, hainbat sektoretako ekintzak, gobernua eta gizarte zibila, hezkuntza eta lehen sektorea. Bost sektore horiek biltzen dituzte esku hartze gehienak, eta ia %70 dira. Horietatik laurdenak baino gehiago osasungintzara bideraturik daude, oro har[8].

8. Kudeaketa Memorian ikus daiteke sektore banaketaren xehetasuna, 16. orrialdean.

4. TAULA. **Nafarroako garapenerako laguntza ofizialen banaketa sektorearen arabera, 2011-2019 aldia**

| Sektorea | Ehunekoa |
|---|---|
| Larrialdiko laguntzak | %5,9 |
| Enpresak eta beste zerbitzu batzuk | %0,3 |
| Energia sortzea eta hornitzea | %0,1 |
| Ura hornitzea eta araztea | %3,8 |
| Hezkuntza | %7,4 |
| Gobernua eta gizarte zibila | %12,5 |
| Bestelako zerbitzuak eta azpiegitura sozialak | %1,5 |
| Biztanleriari eta ugalketa osasunari buruzko programak eta politikak | %3,4 |
| Osasuna | %25,9 |
| Emakumea eta garapena | %5 |
| Hainbat sektoretako beste hainbat | %12,6 |
| Ingurumenaren babes orokorra | %1,5 |
| GKEEendako laguntza | %0,3 |
| Zehaztu / sailkatu gabe | %6,5 |
| Lehen sektorekoak | %11,3 |
| Bigarren mailakoa | %2 |
| **GUZTIRA** | **%100** |

Nafarroako Gobernuak Saharako herriarentzako **Ekintza Humanitariora** ere bideratu du aurrekontuaren zati bat; hain justu, larrialdietarako laguntzetara eta ekintza humanitario espezializatura. Orotara 4.570.295 € bideratu dira 16 herrialdetan 47 esku hartze egiteko. Horietatik gehienak Aljeriako kanpalekuetan errefuxiaturik dauden sahararrei zuzenduak dira (10 guztira, nahiz eta egiaz urtero errepikatzen den jarduera bera izan; 1.866.000 € orotara); hau da, inbertitutako baliabideen erdia baino zertxobait gutxiago.

Larrialdiko fasean, helburua izan da laguntza eta babesa ematea hondamendien biktimei, izan hondamendi naturalak edo gizakiak sortuak, bai eta haien zuzeneko ondorioen biktima direnei ere, oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak ahalik eta azkarren emanez, bizirik jarrai dezaten bermatzeko eta ukitutako pertsonen sufrimendua arintzeko.

Garapenerako lankidetza sustatzeko eta hedatzeko esparruan, **Garapenerako Hezkuntzarako 149 proiektu sustatu dira, guztira 2.697.900 euroko dirulaguntzatan**, sentsibilizazio ekintzak eta «Elkartasunaren aldeko gazteak: ikusi, parte hartu eta kontatu» programa.

Halaber, Nafarroako Gobernuak **zuzeneko lankidetzaren esparruko** esku hartzeak finantzatu ditu zenbait tresnaren bidez. Adibidez: laguntza teknikoko proiektuak;

prestakuntza eta ikerketa, eta sendotze instituzionala; Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin lorturiko hitzarmena; ANARASDekin sinaturiko hitzarmena, 2016an eta 2019an Saharako ordezkaritza Nafarroan babesteko; eta ANASekin sinaturiko hitzarmena, 2016an eta 2019an saharar adingabeendako bake oporraldien programarako.

Atal hau amaitzeko, 5. taulan jasotako datuak aurkezten ditugu. Datu horiek erakusten dute, batetik, izugarri murriztu direla garapenerako laguntza ofizialak plangintza aldi batetik bestera eta, bestetik, kontzentrazio adierazle onak mantentzen direla, bai geografikoki, bai sektoreka.

5. TAULA. **I. eta II. Plan Zuzentzaileen adierazle orokorren arteko konparazioa**

| Adierazlea | I. Plan Zuzentzailea | II. Plan Zuzentzailea |
|---|---|---|
| Egiaz indarrean egoniko urteak | 4 | 9[9] |
| Banaturiko garapenerako laguntza ofiziala | 78.441.627 | 73.738.523 |
| Garapenerako laguntza ofizialaren urteko batezbestekoa | 19.610.406,75 | 8.193.169,22 |
| Kontzentrazio geografikoa | | |
| %80 | 11 herrialde (%79,5) | 11 herrialde (%77,1) |
| %20 | 51 herrialde (%20,5) | 40 herrialde (%22,9) |
| Kontzentrazio sektoriala | | |
| %80 | 8 sektore (%79,4) | 7 sektore (%79,4) |
| %20 | 14 sektore (%20,6) | 9 sektore (%20,6) |

Azkenik, aipatu behar da ez dela egin Nafarroako lankidetzaren inpaktuaren azterketarik, ez baitzen behar bezala diseinatu adierazleen sistema bat, ez eta azterketa mota hori eragin zezakeen informazioa biltzeko sistema bat ere.

9. 9 urtez egon da indarrean: 2011tik 2019ra.

## 1.4. II. Plan Zuzentzailearen ebaluaziotik eratorritako ikaskuntzak eta erronkak

*Nafarroako Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailearen Ebaluazioa*[10] dokumentuan adierazten denez, ezaugarri nagusia izan da nabarmen murriztu direla lankidetzarako funts erabilgarriak, horrek ekarririko ondorioekin, aurreko atalean ikusi den bezala. Orobat, adierazten du hori guztia Nafarroako Aurrekontu Orokorretan egindako aurrekontu doikuntzen ondorio dela. Hala ere, helburu asko bete dira ehunekotan, baina, jakina denez, planaren irismena ez da bat etorri hasieran planteatu zenarekin.

Kontzentrazio geografikoaren eta sektorialaren helburuak bete dira ehunekotan, baina aurreikusitako finantza zenbatekoak baino txikiagoak izan dira. Herrialdekako kontzentrazio geografikoa mantendu egin da, eta bete da funtsen %80 gutxienez lehenetsitako herrialdeetara bideratzeko helburua. Halaber, lortu da funtsen %22 gutxien aitzineraturiko herrialdeetara (GAH) bideratzea, eta gainditu egin da aurrez ezarritako %20ko helburua. Nafarroako Gobernuak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren Herrialdeak Elkartzeko Esparruekin lankidetzan jardun du, eta nabarmentzekoa da Malirekin lankidetzan parte hartu izana, non pisu handia baitu Nafarroako lankidetzak. Sektoreko kontzentrazioari ere eutsi zaio, funtsen %87,5 lehenetsitako sektoreetara bideratuz.

Garapenerako politiken koherentziarekin loturiko neurriei dagokienez, ezin izan da aitzina egin proposaturiko helburuetarantz. Era berean, ez dira aurreikusi bezala garatu Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua berritzeko eta dinamizatzeko neurriak. Ebaluazioarekin loturik, GGKEek iritzi diote Kontseiluak berriro ekin behar diola inplikaturiko eragile guztien arteko bilera gune nagusiaren dinamikari, areagotu egin behar duela eragile batzuen konpromisoa eta funtsean informazio esparrua huts izatea gainditu beharreko auzia dela.

Positiboa izan da Lankidetzarako Zerbitzu arduradunaren, Nafarroako GGKEen Koordinakundearen eta GGKEen arteko komunikazioaren gaineko balioespena, baina aldeko iritzi hori ez da zabaltzen Nafarroako Gobernu osora.

---

10. Zentzu hertsian, ez da egin II. Plan Zuzentzailearen ebaluaziorik, baina hainbat lan taxutu dira balioespena lortzeko eta gauzatzeari buruzko ikaskuntzak eskuratzeko; hori guztia Nafarroako Gobernuko Diru sarreren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak eginiko laburpen dokumentuan xehatu zen, zeina *2011-2016 aldirako Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen ebaluazioa* deitzen baita. Lan hauei egiten zaie erreferentzia: *2011-2016 aldiko Kudeaketa Memoria*, errandako zerbitzuak egina; *Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen ebaluazio kualitatiboaren txostena*, NUPeko ikerketa talde batek prestatua; eta *Nafarroako Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailea. Ebaluazio kuantitatiboren txostena,* hura ere Nafarroako Unibertsitate Publikoak egina.

Era berean, ondorioztа daiteke planaren monitorizazio eta ebaluazio sistema ez dela izan guztiz eraginkorra, ez baitzen ezarri planaren ebaluazio adierazleen zati handi baten datuak bilduko zituen informazio sistemarik.

Laburbilduz, hauek dira ikaskuntza eta erronka nagusiak:

**Nafarroako lankidetzarako inplikazioak**
**IKASKUNTZAK**

- II. Plan Zuzentzaileak zuzen orientatu ditu deialdiak eta garapenerako laguntza ofizialen banaketa portzentuala, behar bezala diseinaturiko orientazio estrategikoko dokumentu teknikoa baita. Garrantzitsua da kontzeptu eta estrategia esparru egokia eta malgua izatea, txertatu beharreko aldaketak txertatzeko.
- Plana ez da gauzatu potentzialtasun osoan, garapenerako laguntza ofizialetan izaniko murrizketaren eraginez. Beharrezkoa da aurrekontu esparru errealista bat izatea.
- Plana ez da behar bezain «egokia» izan eragile guztien aldetik, eta ez du izan sistema aproposik zabalkunderako eta kontuak emateko. Eragile guztiei zabaltzeko eta herritarrei kontuak emateko ekintzak txertatu behar dira.
- Adierazleen sistemak arazoak izan ditu, bai diseinuaren aldetik, bai informazioa biltzeko metodologia egoki bat ezartzeko. Emaitzen esparruaren diseinua planaren formulazioan bertan txertatu behar da, adierazleak, egiaztapen iturriak eta informazioa biltzeko metodologia zehazturik.

**Nafarroako lankidetzarako inplikazioak**
**ERRONKAK**

**Plangintza ziklo berriaren plangintzaren ezaugarriei buruz:**

- Operatiboa izatea urteko edo bi urteko programen bidez.
- Dokumentu malgua izatea eta kontingentzia mota guztietara egokitzeko gaitasuna edukitzea.
- Urtez urteko egiazko aurrekontu esparru bat izatea, beharrezko egonkortasuna eta koherentzia izan ditzan.
- Errealismo handiagoz heltzea emaitzen esparruari eta adierazleen sistemari[11].
- Nazioarteko lankidetza estrategiekin bat egiten jarraitzea (2030 Agenda, Garapenerako Europako Ituna, Espainiako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea).
- Plana bera hedatzeko estrategia bat izatea.

**Konpromiso politikoari buruz:**

- Lankidetza politikak politika publiko garrantzitsu izateko bidean aitzinera egitea, eta politiken koherentzia kontuan hartzea.

**Eragileen parte hartzeari buruz:**

- Eragileen arteko inplikazioa eta komunikazioa bermatuko duten mekanismoak izatea.
- Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren eta haren batzorde operatiboen garrantziari eustea.

**Sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari buruz:**

- Garapenerako hezkuntzari emaniko garrantziarekin jarraitzea.
- Komunikazio estrategia argia eta zeharkakoa ezartzea gizarte osora begira.

11. Lehen erran dugun bezala, aurreko planeko adierazleen sistemak eta informazioa biltzeko sistemak ez ditu zuzen ebaluatu prozesua eta inpaktua, eta, hortaz, aintzakotzat hartu behar da alderdi hori plan berrian.

# 2.

# Ikuskera, printzipio eta zehar-ikuspegiak

## 2.1. Giza garapen jasangarria

Nafarroako Gobernuaren Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzaile honen azpian dagoen estrategiak bi oinarri ditu funtsean: batetik, **garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legean ezarritako printzipio gidariak** eta, bestetik, **gaiari buruzko nazioarteko printzipio adostuak**. Haren ikuspegia nazioarteko testuinguruaren eta adostasun horren azterketatik abiatzen da, baita lankidetza deszentralizatuaren zereginaren kontzeptualizaziotik eta Nafarroako Foru Komunitateko garapen eragileen ibilbidearen eta indarguneen ebaluaziotik ere.

Nafarroako lankidetza gure herritarren eta erakundeen elkartasun ekintza gisa ulertzen da, nortasun propioarekin eta gainerako eragileekin koordinaturik. **Giza garapen jasangarriarekiko** konpromisoa berresten du, pertsona guztiendako gaitasunak eta aukerak sustatzean zentratuta. Nazio Batuen Garapenerako Programak giza garapenari buruz eginiko planteamendu berriak onartzen ditu, zeinak duintasuna, determinazio askea eta giza eskubideak txertatzen baititu ikuspegiaren berezko elementu gisa.

Nafarroako lankidetzak herritarrekiko eta gizarte erakundeekiko hurbiltasuna baliatu nahi du herrialde kideetan betebeharren eta eskubideen titularren gaitasunak indartzeko eta, elkartasunetik begiraturik, tokiko garapeneko eta deszentralizazioko prozesuak bultzatzeko.

Lankidetzaren funtsezko elementutzat jotzen du parte hartzea sustatzea Garapenerako Hezkuntzako programen bitartez, bai herrialde kideetan, bai Nafarroan.

7. IRUDIA. **Giza garapen jasangarriaren osagaiak, NBGPren giza garapenaren 2016ko txostenaren arabera**




Nafarroako lankidetzak bat egiten du erabat **2030 Agendarekin**, eta garapen jasangarriko helburuak lortzeko eragin zuzena duten sektore estrategikoetara bideratzen du plangintza, dela garapen bidean dauden herrialdeetan, dela tokian-tokian —hala nola Nafarroako Foru Komunitatean bertan—. Agenda berriak aitortzen du tokiko eta eskualdeko agintariek garrantzia dutela partaidetza eta inklusioa sustatzeko, funtsezko bi elementu baitira bide horretan aitzinera egiteko. Garapen jasangarriko helburuak lortzeko, modu berriak bilatu behar dira ekosistemarekin erlazionatzeko, antolatzeko eta ekoizteko. 2030 Agenda kokatzeko prozesuaren mugarri bat Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziak onetsitako dokumentua da. Agiri hartan jasotzen denez, «aukera paregabea eskaintzen die tokiko, eskualdeko eta nazioarteko komunitateei eta agintariei elkarrekin lan egiteko, giza eskubideak eta herriak ardatz dituzten eta gobernantza maila desberdinetan eta lurralde garapena sustatzen duten oinarri berritzaile eta berrietan. Lankidetza deszentralizatua funtsezko tresna da erakundeak indartzeko eta elkartasuna sustatzeko, gaitasunak hobetzeko eta berdinen artean ikasteko, guztia ere hainbat mailatako eta lurraldeko ikuspegiarekin».

Nafarroako lankidetzak, halaber, **garapenerako politiken koherentziarekin bat egiten du**, aurretik ere definitu dugun moduan (ikus 9. orrialdea), ekintza politikoaren ikuspegi integrala baitu, eta, bereziki, bi alderdi nabarmendurik: alde batetik, kontuan hartu behar da —eta mugatzen saiatu— beste jarduera ildo batzuetan duen inpaktu negatibo potentziala; eta, bestetik, lankidetza politikaren eta beste politika batzuen arteko koordinazioa bilatu behar du, politika horiek ere bat etor daitezen giza garapen bidezko eta jasangarriaren helburuekin eta pobreziaren aurkako borrokarekin. Nafarroako lankidetzaren aburuz, garapenerako politiken koherentzia funtsezko elementua da 2030 Agenda lokalizatzearen alde egin duen apustuari esker, eta dagoeneko kontuan hartu ditu koherentzia hori garapen jasangarriko helburuen jabetze esparruan sustatzeko moduak, garapenerako laguntza ofizialaren bidez garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko konpromisoa txertatuz eta garapenerako laguntza hori pixkanaka gehituz, harik eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren % 0,7ra iritsi arte.

## 2.2. Printzipioak

Honako printzipio hauek arautuko dute une oro Nafarroako lankidetza, II. Plan Zuzentzaileak ezarritakoaren ildotik eta nortasun marka gisa:

8. IRUDIA. **Nafarroako lankidetzaren printzipioak**



- ELKARTASUNA: Nafarroako lankidetza «Nafarroako gizarteak historian zehar eta azpiegitura aldetik pobretutako herrienganako duen elkartasunaren agerkaria da». Mundu globalizatu honetan, eta 2030 Agendak berezkoa duen iparralde *vs* hegoalde dikotomiaren hausturarekin bat etorriz, herrialdeen artean ageri diren desberdintasunekiko elkartasunak eta erantzukizun partekatuak bideratzen dituzte gure lankidetza ekintzak.
- OSOTASUNA: Nafarroako Gobernuak, garapenerako lankidetzaren arloko eskubideen ikuspegiarekin duen konpromisoarekin bat etorriz, ulertzen du giza garapenak hainbat dimentsio biltzen dituela eta berez lotuta dagoela giza eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kultural guztiak errespetatzearekin eta sustatzearekin. Garapenerako politiken koherentziarekin eta 2030 Agendarekin bat etorriz, Nafarroako lankidetzak bere politika publikoen osotasuna sustatuko du.
- GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA: Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren aldeko apustuaren ildotik, Nafarroako lankidetzak gardentasuna sustatuko du garapenerako lankidetzako esku hartze guztietan, bai eta garapen eragile guztien aurrean kontuak emateko neurriak ere, dela Nafarroan, dela herrialde kideetan. Ulertzen da nahitaezkoa dela kontuak emateko mekanismo eraginkorrak indartzea eskubideen titularrek giza eskubideak betetzea eskatzeko duten gaitasuna areagotzeko.
- ELKARTZEA: Garapenaren Eraginkortasun Agendan ezarritako jabetze eta lerrokatze printzipioen ildotik, Nafarroako lankidetzak aitortu egin behar du herrialde kideek, haien erakundeek eta gizarteek garapen lehentasunak zehazteko duten protagonismoa. Era berean, printzipio hori garapen jasangarrirako 17. helburuarekin lerrokatuko da, Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza suspertzeko. Elkartze printzipioak berekin dakar giza garapen jasangarriko epe luzeko prozesu endogenoei laguntzea, bai eta berdintasun eta lankidetza harreman aldebikoan oinarritutako herritartasun globaleko hezkuntza prozesuei ere.
- OSAGARRITASUNA: Garapenaren Eraginkortasun Agenda harmonizatzeko printzipioan oinarriturik, Nafarroako lankidetza politikak osagarritasun printzipioa txertatzen du Estatuko lankidetza politikarekin eta Nafarroako udalen eta gizarte zibilaren lankidetzarekin sinergiak bilatzean.
- PARTAIDETZA: Nafarroako lankidetzak garapenerako eragile guztien partaidetza «aktibo, aske eta garrantzitsuaren» kontzeptua sustatuko du, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak adierazten duen bezala. Printzipio horrek erran nahi du, halaber, Nafarroako lankidetza herrialde kideetako pertsonen eta elkarteen partaidetza prozesu gisa ulertzen dela. Alde horretatik, Nafarroako lankidetzaren ustean, baztertutako pertsonek erabakiak hartzen parte hartzea funtsezkoa da beren eskubideak benetan gauzatzeko. Era berean, Nafarroako Foru Komunitatearen

barruko partaidetzak bere gain hartuko ditu Nafarroako Parte hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legearen printzipio gidariak; haien arabera, herritarren gizarte ongizateari lagundu behar dion eskubide sozial eta demokratiko gisa ezartzen da partaidetza, eta, beraz, plan hau egikaritzean ez ezik hari eginiko jarraipenean ere proiektatu behar da. Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua da horretarako espazio egokiena eta nagusia.

## 2.3. Zehar-ikuspegiak, estrategia horizontalaren operatibizazioaren aldeko apustua

Plan Zuzentzaile honen oinarrian dagoen garapena ulertzeko moduak berekin dakar lau zehar-ikuspegi aintzat hartzea, **horiek gidatzen baitituzte Nafarroako garapenerako lankidetzaren politika eta jarduera guztiak.** Ikuspegi horiek hiru eremu erkidetatik gauzatuko dira, zeinak **jarraian deskribatutako ildo bakoitzerako garatuko baitira**:



### 2.3.1. Genero ikuspuntua

Plan zuzentzaile honek berretsi egiten du Nafarroako Gobernuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin eta generoan oinarritutako diskriminazioaren aurkako borrokarekin duen konpromisoa. Hasiera hasieratik azpimarratu behar da genero teoriak zera direla, denboran zehar izaniko etengabeko bilakaeraren, ahaleginaren, hausnarketa kritikoaren, iraunkortasunaren eta gizon eta emakume askoren sinesmenaren emaitza, eta bereziki nabarmendu behar da mugimendu feminista, historiaren norabidea aldatzeko borrokatu baitira eta hala egiten jarraitzen baitute. Azken hogei urteetan, generoa garapenean integratzeko nazioarteko adostasun bat eraiki da, Beijingo Adierazpenean eta haren Ekintza Plataforman oinarriturik. Garapenerako lankidetzaren eragileek, hala administrazio publikokoek nola gizarte erakundeetakoek, kontuan hartzen dute genero ikuspegia, bai herrialde kideetan dituzten proiektuetan txertatzeko, bai estrategia instituzionalean ere ezartzeko. Hau da, genero ikuspegia eta ekitatearen bilaketa alderdi estrategikotik txertatu behar da, eta erakunde mailan genero berdintasunaren aldeko aldaketa prozesu bat inplementatzen hasten dira, erakundearen barruan aztertuz zer-nola eratzen diren desberdintasunak erakunde bakoitzeko kultura instituzionalean.

### 2.3.2. Giza eskubideetan oinarrituriko ikusmoldea

Duela ia bi hamarkadatik hona, nazioarteko komunitateak, batez ere Nazio Batuen Erakundeak, bestelako ikuspegi bat eraiki du, zeinaren bidez zeharkako bilakatu nahi baititu giza eskubideak garapen teorietan eta garapenerako lankidetzako eragileen jardueretan. 2000. urtean, Garapenerako Nazio Batuen Programak (NBGP) argitaratutako Giza Garapenari buruzko Txostenak berak honela islatu zuen giza eskubideen eta giza garapenaren arteko harremana: «Giza eskubideek eta giza garapenak pertsonen bizitza hobetzeko beharrezko emaitzei buruzko kezka partekatzen dute, baina baita prozesuak hobetzeari buruzkoa ere. Pertsonak dituzte helburu, eta horregatik adierazten dute funtsezko interesa erakundeek, politikek eta prozesuek ahalik eta parte hartze handiena eta estaldurarik zabalena izan dezaten, pertsona guztien gaitasuna errespetatuz».

Giza eskubideetan oinarrituriko ikusmoldea «giza garapenaren prozesurako esparru kontzeptual bat da; araugintzaren ikuspegitik, giza eskubideen nazioarteko arauetan oinarritzen da, eta ikuspegi operazionaletik, berriz, giza eskubideak sustatzera eta babestera bideraturik dago. Helburua da, batetik, garapen arazoen erdigunean dauden desberdintasunak aztertzea eta, bestetik, garapenaren arloan aitzina egitea oztopatzen duten jardunbide diskriminatzaileak eta boterearen banaketa bidegabea zuzentzea» (Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa, 2007:15). Ikuspegi hori giza eskubide

guztien unibertsaltasun, zatiezintasun eta interdependentziatik abiatzen da —eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak, indibidualak eta kolektiboak—, eta nazioarteko itunetan aitortutako eskubideen bermean du oinarri.

Giza eskubideetan oinarrituriko ikusmoldea aldendu egiten da beharrizanetan ardazturiko ikuspegitik, eta pertsonen gaitasunak indartzean ipintzen du erdigunea (eskubideen titular diren aldetik), zer eskubide dituzten jakin dezaten eta eskatzeko gaitasuna izan dezaten; halaber, erakundeen gaitasunak ere hartzen ditu oinarri (betebeharren titularrak), giza eskubideak bermatu, sustatu eta bete ditzaten.

Giza eskubideetan oinarrituriko ikusmoldea bat dator 2030 Agendaren «inor gibelean ez uztea» goiburu nagusiarekin, eta, bereziki, baztertutako biztanleen eskubideak lortzea hartzen du ardatz, baita eskubide horiek urratuak izateko arriskua dutenenak babestea ere, premisa honetan oinarriturik: herrialde batek ezin du modu jarraituan aitzinera egin giza eskubideen printzipioak aitortu gabe, batez ere unibertsaltasuna, gobernantzaren oinarrizko printzipio gisa.

Giza eskubideetan oinarrituriko ikusmoldeak bere-berea du pertsonen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen gaitasunak indartzea, gobernantza demokratikoko esparru batean (gobernu ona), eta maila guztietan.

### 2.3.3. Aniztasun kulturala

Aniztasun kulturala errespetatzea giza eskubideak kontuan harturik zaindu beharreko aberastasuna da, eta garrantzi berezia ematen zaio herrien ondare materiala eta immateriala babesteari, bai eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzeari ere. Aintzakotzat hartu beharko dira kultura eta teknika tradizionalak, garapeneko edo larrialdiko esku hartze proposamenen egokitasuna eta eraginkortasuna aztertzerakoan.

Herri indigenei eta Afrikarren ondorengoei dagokienez, funtsezko faktorea da ekitatea, eta beste ikuspegi batekin lotzen da haien garapen integraleko prozesuaren oinarri gisa: giza eskubideetan oinarritutakoarekin. Horren barruan sartzen dira haien parte hartze politiko osoa eta eraginkorra lortzera bideratutako prozesuak, bai eta jabetza intelektualeko eskubideen, ondarearen eta kultura aniztasun aberatsaren defentsa ere. Herri horien baldintza bereziek protagonismo handia ematen diete biodibertsitatearen defentsan eta ingurumenaren babesean. Desberdintasun arrailak direla eta, ahulezia sozial eta ekonomikoan egon ohi dira taldeok, eta, askotan, nagusi izaten dira desplazatuen eta errefuxiatuen fluxuetan.

### 2.3.4. Ingurumen jasangarritasuna

Planetaren ekosistemen suntsipen gorakorra, klima aldaketa eta biodibertsitatearen galera garrantzi handiko erronkak dira garapenarentzat. Duela hogeita hamar urte hasi zen kezkatzen nazioarteko komunitatea garapenaren jasangarritasunaren inguruan, eta, 2030 Agendaren eta garapen jasangarriko helburuen onespenarekin, giza garapenerako eta ingurumen jasangarritasunerako agendak batzea lortu du. Hori funtsezko elementua izan da garapenerako agenda berriarentzat.

Ingurumen jasangarritasuna Nafarroako lankidetzarako zehar-ildo gisa txertatzeak esan nahi du ingurumen inpaktuaren azterketa bat sartzea Nafarroako Gobernuak sustatutako esku hartze guztietan; batetik, identifikatutako ingurumen inpaktu negatiboak saihesteko edo minimizatzeko eta, bestetik, dagozkion ingurumen neurri zuzentzaileak aplikatzeko. Garrantzi berezia izanen du klima aldaketak jasangarritasunen dituen eraginak arintzeko mekanismo jakin batzuk kontuan hartzeak, Nafarroako lankidetzak babesturiko esku hartzeen kasuan.

# 3.

# Espezializazio geografiko eta sektoriala

## 3.1. Espezializazio geografikoa

Plan Zuzentzaile honen esparruan eta 2030 Agendaren printzipioekiko konpromisoan («inor ez uztea gibelean»), Nafarroako Gobernuak herrialde kideekin lankidetza bideratzearen alde egiten du, aurreko bi plan zuzentzaileetan laguntza bereziki garrantzitsua izan baitute (herrialde horietara bideratutako funtsen bolumenari dagokionez). Horrez gain, kontuan hartu da Giza Garapenaren Indizea (GGI) ertaina edo apala den, eta gutxien aitzinaturiko herrialdeen artean ote dauden. Ildo horretan, eta kontuan harturik herrialde aurreratu horiek gehienak Afrikan daudela, oraingo plangintza aldi honetan lortu nahi da Nafarroako lankidetzak presentzia handiagoa izatea kontinente horretako herrialdeetan. Gainera, kontuan hartu dira giza garapenaren indize handia duten herrialdeak eta Nafarroaren lankidetza izan dutenak, baina kasu horietan garapen txikieneko estatuz azpiko eremuak lehenesten dira (giza garapenaren indize apal edo ertainarekin pareka daitezkeenak); era berean, kontuan hartu da Nafarroako Foru Komunitatea, bere erakundeen eta gizarte zibileko antolakundeen bidez, bereziki sentibera agertu dela Mendebaldeko Sahararen egoerarekin, zeina ahaztutako krisietako bat bezala baitago katalogatuta, Laguntza Humanitarioko Europako Bulegoak eginiko txosten baten arabera. 1992. urteaz geroztik, laguntza eskaintzen zaie Tindoufeko (Aljeria) kanpamentuetan errefuxiatutako *sahararrei*, ekintza humanitarioarekin eta garapen proiektuekin. 2016an, Nafarroako Gobernuak, Fronte Polisarioak eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak esparru akordio bat sinatu zuten elkartasun eta lankidetzarako. Haren arabera, plan honek lehentasun gisa aitortzen ditu Tindoufeko kanpamentuetan (Aljeria) errefuxiatutako sahararren aldeko laguntza ekintzak, aipatutako akordioaren esparruan gauzatu beharrekoak.

Horrekin guztiarekin, *6. taulan jasotako herrialdeetara* lehenetsi dira geografikoki esku hartzeak, eta eremu geografiko horietan zentratutako esku hartzeen proposamenak bultzatu dira, lehen azaldutako ekintzetan jasotzen den bezala.

6. TAULA. **Lankidetza ekonomikorako lehenetsitako herrialdeak.**

| Herrialdea | GGI | Esparrua | GAH |
|---|---|---|---|
| Bolivia | Erdi mailakoa | Herrialdea | |
| Kolonbia | Handia | Eskualdekoa* | |
| Ekuador | Handia | Eskualdekoa | |
| El Salvador | Erdi mailakoa | Herrialdea | |
| Guatemala | Erdi mailakoa | Herrialdea | |
| Haiti | Apala | Herrialdea | ✓ |
| India | Handia | Eskualdekoa | |
| Mali | Apala | Herrialdea | ✓ |
| Mozambike | Apala | Herrialdea | ✓ |
| Nikaragua | Erdi mailakoa | Herrialdea | |
| Peru | Handia | Eskualdekoa | |
| Herri Palestinarra | Erdi mailakoa (TPO) | Ez dagokio | |
| Kongoko Errepublika Demokratikoa | Apala | Herrialdea | ✓ |
| Ruanda | Apala | Herrialdea | ✓ |
| Saharar herria | – | Ez dagokio | ✓ |

* Eskualdekoa terminoa baliatzen da Estatu baten azpiko administrazio mugapeei erreferentzia egiteko.

Plan zuzentzaile honen esparruan eta, 2030 Agendaren printzipioen arabera, «inor gibelean ez uzteko» konpromisoarekin, Nafarroako Gobernuak garapenerako hezkuntza sustatzen duten ekintzekin jarraitzearen alde egiten du, guztia ere gizarte konprometituagoa sortzeko eta kontzientzia pizteko desberdintasunez, mundu globalizatu baten interdependentziaz eta horiek sortzen dituzten kausa eta ondorioez.

## 3.2. Espezializazio sektoriala

Nafarroako lankidetzak badaki ezin diela heldu garapen prozesuetan berezkoak diren ekintza guztiei. 2030 Agendaren esparruan, eta giza garapen jasangarrian laguntzen duten sektoreen arteko erlazioez jabeturik, Nafarroako Gobernuak zenbait sektoretan sustatuko ditu jarduerak, uste izanik hobeki erantzuten dietela Nafarroako lankidetzaren

ibilbideari eta Nafarroako lankidetza eragileen esperientzia eta gaitasunei. Ildo horretan, plan honen apustua da jarduera guztiak bost sektore nagusitan kontzentratzearen alde egitea, Nafarroako lankidetzaren tradizioa indartu baitaiteke Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin sinergiak ezarriz: osasunerako eskubidea, landa garapen jasangarria, hezkuntzarako eskubidea, emakumeak ahalduntzea, tokiko gizarte zibila eta gobernantza demokratikoa. Egiaztatu behar da lehenespen horrek ez dakarrela beste sektore batzuk baztertzea, baizik eta esku hartze gehienak sektore horietan gauzatuko direla (80:20 irizpidea), lehenespen geografikoaren gainean adierazi dugunarekin egin bezalaxe.

## OSASUNERAKO ESKUBIDEA




Nafarroako lankidetzak ibilbide luzea izan du osasunaren sektoreko esku hartzeen babesari dagokionez, uraren sarbidearekin eta saneamenduarekin lotutakoak barne. Horregatik, planak sektoreko apustu horretan egin nahi du aitzina garapen jasangarrirako 3. eta 6. helburuekin batera (guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea, eta uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea, hurrenez hurren). Nafarroako lankidetzak bat egin du OMEk *osasunari* eman zion definizioarekin: *ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera, eta ez soilik eritasunak ez izatea*. Gainera, esku hartze estrukturalen alde egin nahi du sektore horretan, osasun estaldura unibertsala eskuratzeko eta osasun eragileen gaitasunak indartzeko, ikuspegi asistentzialista hutsetik harago. Era berean, Nafarroako erakundeen eta gizarte antolakundeen indar sektorialak aprobetxatu nahi dira, eta, horretarako, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun langileen partaidetza sustatu nahi da lankidetza teknikoko proiektuetan.

Horrekin batera, *arreta berezia eskainiko zaie alderdi hauek jorratuko dituzten esku hartzeei*:

- Osasun zerbitzu publikoak berdintasunez eta kalitatez eskuratzea.
- Emakumeek sexu eta ugalketa osasunaren arloko zerbitzuak jaso ditzaten sustatzea.
- Haurren desnutrizioaren aurkako borrokan laguntzea.
- Prebalentzia berezia duten eritasunen aurkako ekimenei laguntza ematea.
- Edateko ura eta saneamendua izatea eta higienea.

## LANDA GARAPEN JASANGARRIA

Kontuan harturik landa ekonomiak eragin garrantzitsua duela lehentasunezko herrialde bazkideetan, bereziki Afrikan, eta 2030 Agendak ingurumen jasangarritasunari begira hartutako konpromisoaren harira, proposatzen da esku hartzeen zati bat landa garapen jasangarria babestera zuzentzea.

Nafarroako eragileek badute lankidetza gaitasuna sektore horietan, eta Foru Komunitatearen barnean esperientzia positiboak daude. Beraz, badira aktiboak tokiko ekonomien eraldaketa sustatzeko, bereziki landa sektorean, GJHen ikuspegi jasangarri eta koherenteago baten alde. Inpaktu berezia izanen dute garapen jasangarriko 2. eta 12. helburuekin (gosearekin bukatzea, elikagai segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea; eta ekoizpen eta kontsumo arduratsua, hurrenez hurren).

Horrekin batera, *arreta berezia eskainiko zaie alderdi hauek jorratuko dituzten esku hartzeei*:

- Ingurumena errespetatuko duten ekoizpen gaitasunak indartzea:
  - Elkartasun ekonomia sustatzea alternatiba gisa, batez ere antolatutako emakumeek gidatutako ekimenak.
  - Tokian tokiko kultur praktikak kontuan hartzen dituen nekazaritzako eta abeltzaintzako garapen jasangarriari ekarpena egitea.
- Elikadura burujabetza eta landa garapena sustatzea:
  - Nekazari txikiei laguntza ematea, ingurumena errespetatzen duten ekoizpen sistema jasangarriak ezar ditzaten.
  - Elikadura burujabetzari loturiko ekimenak abiarazteko sostengua ematea.

## HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Nafarroako lankidetzak, bere ibilbidean barna, ahalegin berezia egin du hezkuntzarako eskubidea sustatzeko hainbat hezkuntza proiekturen bidez, eta, etorkizuneko belaunaldietarako duen garrantzia kontuan harturik eta garapen jasangarriko 4. helburuarekin bat etorriz —hau da, kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea—, egokitzat jotzen da

lehentasunezko sektore gisa hartzea, guztia ere **Incheongo Adierazpena**[12] eta **garapen jasangarrirako 4. helburuaren** orientaziopean.

Sektore horren barruan garrantzi berezia hartzen du UNESCOk munduko herritartasunerako edo herritartasun globalerako hezkuntza deitzen duen hori Nafarroan sustatzeko helburuak[13], eta hori bat dator Nafarroako lankidetzak garapenerako hezkuntzaren arloan egin duen ibilbidearekin, Nafarroako GGKEen Koordinakundeak definitzen duen moduan ulerturik: hau da, *herritar globalak sustatzea helburu duen prozesu sozioedukatibo bat, zeinean herritarrak jabeturik egonen baitira mundu zabalean diren eta batez ere herrialde txirotuak astintzen dituzten desberdintasunekin; herritar horiek kritiko izanen dira desberdintasun horien kausekin, eta konpromiso aktiboa izanen dute garapen eredu justu, gizatiar eta jasangarri batekin*. Ikuspegi hori eremu formalean eta ez-formalean garatu da, bai eta garapenerako lankidetzaren arloko gizarte sentsibilizazioan ere.

Helburu honek lotura zuzena du garapen jasangarrirako 4. helburuko 4.7 xedearekin, hain zuzen ere «ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenerako, munduko herritartasunerako eta kultura aniztasunaren baloraziorako eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko».

Kontuan hartu beharreko elementu bat hezkuntza berrikuntza izanen da, garapenerako hezkuntza eraginkorragoa eta efizienteagoa izan dadin bere zereginean.

Horrekin batera, *arreta berezia eskainiko zaie alderdi hauek jorratuko dituzten esku hartzeei*:

- Berdintasunezko eta kalitatezko sarbidea oinarrizko (haur hezkuntza eta lehen hezkuntza) eta bigarren hezkuntzara
- Berdintasunezko eta kalitatezko sarbidea prestakuntza teknikora eta profesionalera eta goi mailako prestakuntzara.
- Ekimen zehatzekiko babesa talde ahulenentzat hezkuntza inklusiboa bermatzeko.
- Eraldaketarako eta herritar globalak lortzeko hezkuntza lantzen duten ekimenak babestea.

---

12. UNESCOk eta beste hainbat erakundek —UNICEF, Munduko Bankua, UNFPA, NBGP, NBE Emakumeak eta ACNUR— Hezkuntzaren Munduko Foroa antolatu zuten 2015ean Incheon hirian (Koreako Errepublika), 2015eko maiatzaren 19tik 22ra bitartean. Bertan onetsi zuten Hezkuntzarako Incheongo Adierazpena (2030), zeinetan hezkuntzaren ikuspegi berri bat aurkezten baita datozen 15 urteetarako.

13. UNESCO. *Munduko herritartasunerako hezkuntza, ikasleak XXI. mendeko erronketarako prestatzea.* Paris, 2016.

5 GENERO-BERDINTASUNA

## EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

Beijingo Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren ondorioei jarraituz, Nafarroako Gobernuaren apustua da eutsi eginen diola emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean aitzina egiteko estrategia dualari. Alde batetik, genero ekitatea ezartzen du zehar-lerro gisa, hurrengo atalean deskribatzen den bezala. Bestetik, lehentasun sektorialtzat hartzen du emakumeak ahalduntzea, garapen jasangarrirako 5. helburuaren ildotik (generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea). Hain justu, honela ulertzen du ahalduntzea: «Emakumeek beren bizitzak eta ingurunea taxutzeko gaitasuna handitzeko prozesua, zeinean bilakaera bat gertatzen baita emakumeek beren buruaz duten kontzientzian, estatusean eta interakzio sozialetan duten eraginkortasunean» (Schuler, 1997). Ildo horretan, emakumeen erakundeak eta erakunde feministak indartzea helburu duten esku hartzeak sustatuko dira, guztiak ere emakumeen ahalduntze ekonomikoa hobetzera bideraturik, haien autonomia fisikoa eta genero indarkeriaren aurkako borroka bultzatzeko, eta erabakiak hartzeko eta botere guneetarako sarbidea sustatzeko.

Era berean, sexu aniztasuna defendatzeko gero eta interes handiagoa ageri den testuinguru batean, eta LGTBI+ legearen eta diskriminazioaren aurkako politika publikoen Nafarroako Legearen ildotik, Nafarroako lankidetzak LGBTI+ pertsonen eskubideen aldeko eta garapenaren ikuspegi ez-heteronormatiboaren aldeko ekintzak bultzatuko ditu.

Horrekin batera, *arreta berezia eskainiko zaie alderdi hauek jorratuko dituzten esku hartzeei*:

- Emakumeen autonomia fisikoa eta psikologikoa babestea:
  - Sexu eta ugalketa eskubideak osotara baliatu ditzaten sustatzea, babestea eta bermatzea.
  - Emakumeen aurkako indarkeria mota oro desagerraraztea.
- Emakumeen autonomia ekonomikoa babestea:
  - Emakumeek baliabideetarako sarbidea eta haien gaineko kontrola izan dezaten sustatzea.
  - Antolatutako emakumeek gidatutako ekimen ekonomikoei laguntza ematea.
  - Ekoizpen eta merkaturatze prozesuetan trebatzeko eta ezagutza trukerako prozesuei laguntza ematea.
  - Zaintza lana aitortzea.
- Emakumeen autonomia politikoa babestea:

- Sustatzea bai emakumeen parte hartzea erakunde politiko eta sozialetan, bai haien sarbidea erabakiak hartzeko organoetan.
- Emakumeen gaitasun teknikoak eta politikoak indartzea.
- Emakumeen erakundeak indartzea

## TOKIKO GIZARTE ZIBILA ETA GOBERNANTZA DEMOKRATIKOA




Nafarroako Gobernuaren ustez, tokiko garapena[14] lehentasun bat da lankidetza deszentralizatuari begira. 2030 Agendaren testuinguruan, eta, bereziki, garapen jasangarrirako 16. eta 17. helburuen esparruan (gizarte justu, baketsu eta inklusiboak sustatzea; eta garapen jasangarriaren aldeko aliantza globala berpiztea, hurrenez hurren), tokiko garapen eragileek lurralde kideetan eta Nafarroan duten gaitasuna sustatuko da, ehun sozial indartu bat sustatuz. Lehenespen hori bat dator giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin, betebehar eta erantzukizunen titularrek nazioartean aitortutako eskubideak betetzea planteatzen baita.

Horrekin batera, *arreta berezia eskainiko zaie alderdi hauek jorratuko dituzten esku hartzeei*:

- Tokiko erakunde publikoen gaitasun teknikoak indartzea, nazioartean aitortutako giza eskubideen sustapena gauzatu ahal izateko.
- Giza eskubideak sustatzea eskubideen eta betebeharren titularren artean.
- Estatua toki mailan indartzea (deszentralizatua), gobernagarritasuna hobetzeko.
- Tokiko erakunde publikoen gaitasun teknikoak indartzea (prestakuntza eta akonpainamendua) politika publikoak eta tokiko parte hartzea kudeatzeko.
- Herrien garapena eta emakumeen eskubideak bermatzea helburu duten gobernuen legegintzako ekimenei sostengu ematea.
- Gizarte zibileko erakundeen eta mugimenduen gaitasun teknikoak indartzea, nazioartean aitortutako giza eskubideak defendatu eta betearazteko (eragin politikoa sortzeko gaitasunak).
- Erakunde komunitarioen gaitasun teknikoak indartzea (batez ere landa eremuetako emakume antolatuenak), indigenen edo nekazarien komunitateak kudeatzeko.

---

14. Plan horren testuinguruan, *tokikotzat* hartzen dira estatu mailaren azpitik dauden esparruak (eskualdekoa, departamentukoa, probintziakoa eta udalerrikoa).

9. IRUDIA. **Espezializazio geografiko eta sektoriala**



# 4.

# Helburu orokorrak eta ardatz estrategikoak

## 4.1. Helburu orokorra

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 2. artikuluak zehazten duenez, Nafarroako lankidetzaren funtsezko xedea da «herrialde txiroenen garapenaren alde egitea dela, eta, zehazki*:*

- Garapen bidean dauden herrialdeei laguntzea ingurumena errespetatuko duen garapen jasangarria lortzen, parte hartzearen, demokraziaren eta giza eskubideen aldeko esparruaren barnean eta garapen prozesuak eragindako herritarren parte hartzearekin.
- Oreka handiagoa ematea nazioarteko komunitatearen harreman komertzial, politiko eta estrategikoei, nazioarteko justizia eta bakea sustatuz.
- Herritarren parte hartzea sustatzea garapenerako lankidetzarekin lotutako ekintzetan, gizartean sortzen diren ekimenak babestuz eta garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleekiko konpromiso sozial handiagoa erakutsiz.
- Garapen bidean dauden herrialdeetako giza baliabideak indartzea, ekoizpen egiturak eta erakunde publikoak sendotzea, eskualde mailako gizarteratze prozesuak babestea eta mendekotasunik gabeko garapena erraztea.
- Lankidetzan aritzea larrialdi egoeratako arretarekin, laguntza humanitarioaren bidez eta garapen bidean dauden herrialdetara joanez».

Hori guztia dela eta, plan zuzentzaile honek helburu nagusi hau planteatzen du:

**HELBURU NAGUSIA: Nafarroako lankidetzaren inpaktua eta kalitatea areagotzea espezializazioaren bidez, baliabideak areagotuz eta optimizatuz, eta eraginkortasuna hobetuz giza garapen jasangarriaren ikuspegitik.**

Jarraian azaltzen diren ardatz estrategikoen bidez lortzen da helburu nagusi hori.

## 4.2. Ardatz estrategikoak

*Esku hartzeko ardatz estrategiko* hauek proposatzen dira:

- I. ardatza. Garapeneko eta ekintza humanitarioko prozesuei laguntzea herrialde kideetan
- II. ardatza. Garapenerako hezkuntza
- III. ardatza. Lankidetza sistemaren gaitasunak indartzea

### I. ARDATZA. GARAPENEKO ETA EKINTZA HUMANITARIOKO PROZESUEI LAGUNTZEA HERRIALDE KIDEETAN

Lehendabiziko ardatz honek bi helburu estrategiko ditu. Lehena garapen prozesuak herrialde kideetan laguntzearekin dago loturik, eta bigarrena, berriz, ekintza humanitarioaren alorrekoa da.

#### 1. HELBURU ESTRATEGIKOA. ESPEZIALIZAZIO GEOGRAFIKOA ETA SEKTORIALA BERMATZEA HERRIALDE KIDEETAN GAUZATURIKO LANKIDETZA EKONOMIKOKO ETA TEKNIKOKO ESKU HARTZEETAN.

Helburu hori kalitatearen aldeko apustua da, herrialdeetan espezializazio geografiko eta sektorial handiagoa sustatzearen bidez, 80:20 banaketa printzipio paretiarrean oinarrituta —hau da, bana daitezkeen funtsen %80 gutxienez lehentasunezko eremu geografiko eta sektoreetara bideratzea—; era berean, kalitatearen aldeko apustu hori zehar-ikuspegien operatibizazioaren bidez bilatzen da.

## 1. HELBURU ESTRATEGIKOAREN EMAITZAK ETA EKINTZAK

**1.1 emaitza. Esku hartzeak lehenetsitako eremu geografikoetan kontzentratzen dira**

- 1.1.1 ekintza. Proiektuen eta mikroekintzen baremoak egokitzea, lehenetsitako 13 herrialde eta 2 herrietan eta gutxien aitzinaturiko herrialdeetan egindako esku hartzeak lehenesteko.
- 1.1.2 ekintza. Lehenetsitako eremu geografikoetan egiten diren programen eskakizunetan eta lankidetza teknikoan sartzea.
- 1.1.3 ekintza. Baremoak egokitzea giza garapenaren indize txikiagoa duten eskualdeetan esku hartzeak lehenesteko.

**1.2 emaitzak. Esku hartzeak lehentasunezko bost sektoreetan biltzen dira: osasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, landa garapen jasangarria, emakumeak ahalduntzea, tokiko gizarte zibila eta gobernantza demokratikoa**

- 1.2.1 ekintza. Proiektuen eta mikroekintzen baremoak egokitzea, lehentasunezko 5 sektoreetan egindako esku hartzeak lehenesteko
- 1.2.2 ekintza. Lehentasunezko 5 sektoreetan egiten diren programen betekizunetan sartzea
- 1.2.3 ekintza. Lankidetza teknikoko ekintzak gauzatzea lehentasunezko sektoreetan
- 1.2.4 ekintza. Esku hartze guztietan dagokion garapen jasangarriko helburuaren adierazle egokiak sartzea

**1.3 emaitza. Lankidetza ekonomiko eta teknikoko tresnetan behar bezala integratutako zehar-ikuspegiak**

- 1.3.1 ekintza. Lankidetza tresnetan zehar-ildoak aplikatzeko gida bat egitea
- 1.3.2 ekintza. Tresnen baremazioa egokitzea, zehar-ildoak nola txertatu zehaztuz
- 1.3.3 ekintza. Nafarroako GGKEetan generoari, giza eskubideei, kultura aniztasunari eta ingurumen jasangarritasunari buruzko politikak txertatzea sustatzea

## 2. HELBURU ESTRATEGIKOA. EKINTZA HUMANITARIOAREN INPAKTUA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA.

2016an Istanbulen egin zen Laguntza Humanitarioaren Munduko Goi Bileraren ondoren, Nazio Batuen idazkari nagusiak ***Gizateriarako Agenda*** aurkeztu eta gero, eta Grand Bargain edo akordio handian jasotako konpromisoen ondotik, ekintza humanitarioa ez da ulertzen esku hartze puntual eta isolatu gisa soilik. Ekintza humanitarioak berehalako premiei emandako erantzuna eta etorkizuneko garapenari egindako ekarpena uztartu behar ditu, epe luzerako inpaktu jasangarria bultzatuz, larrialdiko laguntzaren, birgaitzearen eta garapenaren arteko lotura estrategia baten barruan. Berriki argitaraturiko azterlanen arabera, «autonomia erkidegoek eta estatuz azpiko beste emaile batzuek, estatuek baino mendetasun txikiagoa dutenez interes geopolitikoak defendatzeko, seguruenik ahalmen handiagoa dute lotura estrategia hori aplikatzeko, betiere ekintza humanitarioaren izana eta printzipioak errespetatuz» (Gatazken eta Ekintza Humanitarioaren gaineko Azterketa Institutua, 2017). Horrek erran nahi du kaltetutako tokiko biztanleen parte hartzea bermatu behar dela, eta haien gaitasunak indartzeaz gainera eskubideak ere babestu behar direla, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa barne. Gainera, nahitaezkoa da plan honen esparruan babestutako ekintza humanitarioko esku hartzeek genero ikuspegi bat izatea, betiere emakumeen eskubideen urraketa espezifikoa kontuan hartuz eta emakumeek krisien kudeaketan eta gatazken ebazpenean duten rol aktiboa indartuz.

Ekintza humanitarioa gero eta espezializatuagoa da, eta, beraz, Nafarroako Gobernuak nazioarteko lankidetzaren esparru horretan egiten duen ekarpenak bat etorri behar du hori gauzatzeko ardura duten erakundeen espezializazioarekin. Horri esker, areagotu eginen dira larrialdiei eta bestelako krisi egoera humanitarioei erantzuteko kalitatea eta gaitasuna, unean uneko eta berehalako laguntza hutsetik harago, eta zaurgarritasun bereziko une hori gainditzen lagunduko dute erresilientzia sustatuz eta haien garapena bultzatuko duten gaitasunak sortuz.

Laguntza humanitarioaren ikuspegi integral batetik, plan honek ekintza humanitarioaren babesa indartzearen alde egiten du, hainbat aldetako lankidetza ildo bat bultzatuz eta Nazio Batuen sistemako agentzia espezializatuekin hitzarmen estrategikoak formalizatuz, zeinekin lankidetzan aritua baita Nafarroako Gobernua: UNICEF, ACNUR eta UNRWA. Estrategia aldeaniztun hori bat etorriko da planak planteatzen duen espezializazio geografikoarekin eta prebentzioaren, ekintza humanitarioaren, birgaitzearen eta garapenaren arteko lotura ikuspegia aplikatzearekin.

Era berean, berehalako erantzun bat antolatuko da, GGKE espezializatuentzako banakako ebaluazio araubideko deialdi baten bidez, esku hartze humanitarioak antolatze aldera hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako larrialdietarako eta arrisku larri eta berehalakoetarako.

Gainera, urteko plan operatiboak formalizatuko dira Saharako herriarekin sinaturiko elkartasunerako esparru akordioaren ildotik. Plan horietan, laguntza humanitarioaren arloan gauzatuko diren ekintza espezifikoak jasoko dira, lurralde horietan esperientzia duten erakundeen bitartez eta Saharako agintariekin koordinaturik.

10. IRUDIA. **Ekintza humanitarioa hobetzea**




## 2. HELBURU ESTRATEGIKOAREN EMAITZAK ETA EKINTZAK

**2.1 emaitza. Handitu egin da Nafarroako ekintza humanitarioaren kalitatea**

- 2.1.1 ekintza. Nazio Batuen agentzia espezializatuekin hitzarmen estrategikoak formalizatzea.
- 2.1.2 ekintza. Saharako herriari laguntzeko urteko plan operatiboa formalizatzea.
- 2.1.3 ekintza. Larrialdi faseetan berehalako erantzuna antolatzea.
- 2.1.4 ekintza. Grand Bargain edo akordio handiaren eta birgaitze eta garapenaren arteko lotura konpromisoak biltzea.
- 2.1.5 ekintza. Zehar-ikuspegiak biltzea ekintza humanitarioetan.

## II. ARDATZA. GARAPENERAKO HEZKUNTZA:

Bigarren ardatz estrategiko honek helburu estrategiko bakarra dauka:

### 3. HELBURU ESTRATEGIKOA. BEHARREZKO EZAGUTZAK, GAITASUNAK, BALIOAK ETA JARRERAK SUSTATZEA HERRITARREK KONPROMISOA IZAN DEZATEN MUNDU BIDEZKOAGOA, BAKETSUAGOA, TOLERANTEAGOA, INKLUSIBOAGOA, JASANGARRIAGOA ETA SEGURUAGOA ERAIKITZEKO.

2030 Agendaren eta gero eta lotuagoa dagoen mundu baten testuinguruan, Nafarroako Gobernuak *munduko herritartasunerako hezkuntza* moduan ikusten du garapenerako hezkuntza eraldatzailea, globalizazioaren fenomenoaren izaera eta ondorioak ulertzen lagunduko duena. Haren helburuen artean nabarmentzen ahal dira munduko herritartasunaren kontzientzia sustatzea eta herritarren parte hartze eta ekintzarako jarraibideak definitzea.

Plan honek garapenerako hezkuntzaren aldeko apustua egin du pertsonen hezkuntza integralerako prozesu moduan. Hezkuntza dinamikoa da, parte hartze aktibo eta sortzaileari irekia eta konpromiso eta ekintzei zuzendua, boterearen eta aberastasunaren banaketan dauden desberdintasunen inguruan kontzientziatzeko, baita horien kausa eta ondorioen inguruan ere, egitura bidezkoagoak eraikitzeko egin beharreko ahaleginak ahaztu gabe.

Eskubideen ikuspuntuaren aldeko apustuarekin batera, arreta eskaini behar zaio eragile hezitzaileek giza eskubideen sustapen eta bermeari begira izaten ahal duten egitekoari. Halaber, hezkuntza formalaren barruko metodologiari ere garrantzia emanen zaio, eta trebetasunak eskuratzeko prozesua nabarmenduko da, baita *hezkuntza berrikuntzan*[15] eta biderketa gaitasuna indartzean ere.

---

15. Hezkuntza berrikuntzak (Medina, 2015) sistema osoari ematen dizkio —formala izan edo ez— jakintzaren gizartearen eskakizunekiko koherenteenak diren ikuspegiak, baita gizarteek eta haien erakundeek aitzinez aitzin izaten dituzten krisi egoera ziklikoen inguruko ikuspegiak ere. Berritzea aldaketa bat hobekuntzarekin planteatzea da, eta irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan eragina izanen duten benetako eraldaketak eragitera bideratzea. Horregatik, pedagogikoki berritzeak erran nahi du aldatu egin behar direla hezkuntza prozesuetan esku hartzen duten eragileen arteko (irakasleak, ikasleak, eta abar) ekintzaren oinarrian dauden balioak, sinesmenak eta ideiak. Hobekuntza prozesuak prozesu didaktikoen hobekuntzan oinarritzen dira, elkarlanean eta banakako gaitasun profesional edo pertsonal berriak garatuz. Eta bigarren tokian, baldin eta irakaskuntza praktika berri horiek hala eskatzen badute, antolakuntza aldaketetan. Azkenik, berrikuntza pedagogikoak honako ezaugarri hauek dituela adierazi behar da, laburpen gisa:
   a) prozesu bat da;
   b) pertsonak, taldeak eta erakundeak inplikatzen ditu;
   c) irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerekin lotutako praktiken eraldaketak eragiten ditu, eta produktu jakin batzuetan agertu beharko dira, ukigarriak zein ukiezinak izan, eta egiteko moduak, ohiturak, jarrerak, ekintzen eraginkortasuna, dinamika instituzionala eta abar aldatzearekin lotuak izanen dira.
   d) arazo bati erantzuteko sortzen da.

Plan honen testuinguruan, beharrezkotzat jotzen da Foru Komunitatean *garapenerako hezkuntzaren oinarri estrategikoak berritzea*. Beraz, ahalegin bereziak eginen dira, plangintza ziklo honetan herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailearen estrategia sektoriala hobetzeko. Berrikuntza horren ondorioz, egungo tresnak berrikusiko dira.

Dena dela, *eskola solidarioen programarekiko* babesari eutsiko zaio, finkatu beharreko eredutzat jotzen baita, Nafarroako Lankidetzako eragileen arteko sinergia garrantzitsuarekin. Programa hori 2019-2010 ikasturtean zehar jarri zen abian, Eskubide Sozialak eta Hezkuntza Departamentuekin, Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin, hainbat GGKEekin eta ikastetxe batzuekin. Irakasleei zuzendutako prestakuntza programa bat da, ikastetxeei garapenerako hezkuntzarekin lotutako ikuspuntuak hobetzeko didaktika eta planen programazioak gehitzeko aukera emanen diena.

Bestalde, ahaleginak eginen dira Nafarroako Lankidetzak finantzatutako jarduerak *hedatu eta jakinarazteko*, honako bi helburu hauekin: planetaren garapen jasangarriari eragiten dieten fenomeno globalen gaineko sentsibilizazioa areagotzea (2030 Agendaren gizarte, ekonomia eta ingurumen dimentsioak) eta gastu publikoaren berri ematea.

11. IRUDIA. **Garapenerako hezkuntza hobetzea**



## 3. HELBURU ESTRATEGIKOAREN EMAITZAK ETA EKINTZAK

**3.1 emaitza. Berrikusi eta eguneratu egin dira garapenerako hezkuntzako prozesuak, herritar globalentzako hezkuntza eraldatzailearen kontzeptuaren arabera**

- 3.1.1 ekintza. Garapenerako hezkuntzaren estrategia eguneratzea, Nafarroako lankidetzako eragile guztien adostasunarekin.
- 3.1.2 ekintza. Garapenerako hezkuntzan eta sentsibilizazioan zehar-ildo edo ikuspegiak aplikatzeko gida bat prestatzea.
- 3.1.3 ekintza. Garapenerako hezkuntzaren deialdiak egokitzea, eta garapenerako hezkuntzaren estrategia berrikusian eta zehar-ikusmoldeen operatibizazioan sentsibilizatzea.
- 3.1.4 ekintza. Berrikuntza pedagogikoa baremazioan sartzea.
- 3.1.5 ekintza. Nafarroako Elkartasunaren Nazioarteko Saria sendotzea, garapenerako hezkuntza tresna gisa.

**3.2 emaitza. Herritar guztiei zabaldu zaizkie Nafarroako lankidetzaren esku hartzeak**

- 3.2.1 ekintza. Nafarroako Gobernuaren garapenerako lankidetza ekintzari buruzko komunikazio protokoloa prestatzea.
- 3.2.2 ekintza. Nafarroako lankidetzak finantzatutako esku hartzeei buruzko informazioa aldian-aldian bidaltzea komunikabideei.
- 3.2.3 ekintza. Lankidetzaren webgunea (Nafarroako Gobernuaren ataria) komunikazio estrategiara egokitzea.
- 3.2.4 ekintza. Nafarroako lankidetzari buruzko informazioak aldian-aldian helaraztea Espainiako lankidetzaren webgunera.

## III. ARDATZA. INDARTZE INSTITUZIONALA

Hirugarren eta azken ardatz honek helburu estrategiko bakarra dauka.

### 4. HELBURU ESTRATEGIKOA. NAFARROAKO LANKIDETZAREN ERAGILEEN GAITASUNAK HOBETZEA.

Ardatz honen **helburua** da Nafarroako lankidetzako eragileek beren zereginean modu eraginkor eta efizientean jardun dezaten bermatzea. Horretarako, plana gauzatzeko funtsezkoak edo estrategikoak diren hainbat prozesutan paratzen du arreta: gaitasunak sortzea edo eguneratzea; eragileen inplikazioa plana gauzatzerakoan; garapenerako politiken koherentzia, Nafarroako Gobernuaren beraren jardun global eta integrala den heinean; Gobernuaren koordinazioa beste eragile batzuekin eta, bereziki, beste administrazio publiko batzuekin; eta, azkenik, gizarte antolatuaren parte hartzea.

Aipatu den bezala, ardatz honek Nafarroako lankidetzaren funtsezko prozesuak hobetzea du ardatz; hala, lehenik eta behin, eragileen gaitasunak hobetzeko jarduerak aurreikusten dira *prestakuntzaren* bidez, bereziki zehar-ikuspegiak txertatzeari dagokionez, bai esku hartzeetan, bai antolaketa politiketan beretan, bai eta hobekuntza sektorialetara bideratutako prestakuntzari dagokionez ere, ebaluazio kultura ere barnean harturik.

Bigarren osagaiaren ardatza da *eragileak plan horretaz jabetzea*, plana hedatzeko ekintzak eta plana beren jarduеretan nola txertatu den neurtzeko ekintzak barnean harturik. Planaz jabetze horrek prozesu horri buruzko «gogobetetasun elementu» bat ere izan behar du; beraz, neurtu ere egin behar da, planaren jarraipenean egin beharreko aldaketak egin ahal izateko.

Ebaluazioari buruzko kapituluan aurkeztuko denari loturik, ahalegina egin nahi da *ebaluazio kultura* areagotzeko, bai Nafarroako Gobernuaren aldetik, bai gainerako eragileen aldetik, eta garrantzitsua da hori guztia formalizatzea ebaluazioaren gehikuntza bideratuko duen protokolo baten bidez. Arreta berezia izan beharko du esku hartzeen inpaktuaren neurketak, zeina emaitzetarako eta kontuak emateko kudeaketa printzipioen arabera bideratu beharko baita. Azken printzipio horretatik abiaturik, garrantzitsua da lankidetzako webgunearen espazio espezifiko baten bidez ezagutaraztea egiten diren ebaluazioak, bai eta ikaskuntzen kapitalizazio dokumentuak ere, hala estrategikoak nola diruz lagundutako hainbat urtetako lankidetza programetakoak. Horretaz gainera, komunikazio protokoloan sartuko da hedapen hori. Era berean, Gizarte Errealitatearen Behatokiaren laguntza izanen da planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Barne koordinazioari dagokionez, *Garapenerako Politiken Koherentzia* kontzeptua du ardatz, eta hori estu loturik dago 2030 Agenda ezartzearekin; izan ere, plan honek agenda horren ikuspegia du abiapuntu, politiken koherentziaren adierazle gisa.

Gainera, *Nafarroa Suspertu Planaren* lehentasunetako bat kontuan harturik, plangintza aldi honetan egokitasun azterlan bat eginen da Nazioarteko Lankidetzarako Nafarroako Agentzia sortzeko zuzenbide publikoko erakunde gisa eta nortasun juridiko publikoz, ondare propioz eta kudeaketa autonomiaz horniturik. Haren helburua izanen da garapenerako nazioarteko lankidetza hobeki administratzea, eta, horretaz gainera, lan eginen du garapenerako lankidetzaren arloko jardunak gehiago lerrokaturik egon daitezen gobernuaren kanpo dimentsioko jarduera orokorrarekin, zeharkakoagoa eta koherenteagoa izan dadin, eta, azken buruan, Nafarroako Gobernuaren lankidetza politika indartu dadin.

*Administrazioen arteko koordinazioari* dagokionez, Parisko Agendan adierazitakoaren arabera, ahaleginak egin behar dira koordinazio eta osagarritasun mekanismoak hobetzeko. Bereziki, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren kasuan, hura baita arlo honetako erreferentziazko estatu erakundea eta urtero ematen baitzaio Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizialei buruzko informazioa. Egungo harremanekin aitzina jarraitzeaz gainera, datozen urteetarako Agentzia honen azpiegitura baliatu nahi da Nafarroaren lankidetza zuzena indartzeko.

Azkenik, partaidetzak, Nafarroako lankidetzaren printzipio gidaria den aldetik, *partaidetza espazioen* hobekuntzan du isla, bereziki Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluan.

12. IRUDIA. **Indartze instituzionala**

| PRESTAKUNTZA | ERAGILEEN INPLIKAZIOA | EBALUAZIO KULTURA | GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA | KOORDINAZIOA | PARTE HARTZEA (NGLK) |
|---|---|---|---|---|---|
| · Premien diagnostikoa<br>· Prestakuntza programa prestatzea<br>· Prestakuntza ekintzak | · Trukea eta elkar ezagutzea administrazioaren, GGKEen eta beste eragile batzuen artean<br>· Plana hedatzea | · Ebaluazio protokoloa<br>· Jarraipena eta ebaluazioa egiteko elementuak txertatzea.<br>· Ebaluazioa sistematizatzea.<br>· Jakintza kudeatzeko plana.<br>· Ebaluazioa hedatzea | · 2030 Agenda - Garapen jasangarriko helburuak ezartzea<br>· Lankidetza teknikoa<br>· Nafarroako Garapenerako Lankidetzarako Agentzia sortzeko azterketa. | · Info@od CE<br>· Koordinazio bilerak eta topaketak AGE<br>· Harremanak beste autonomia erkidego batzuekin<br>· Baterako jarduerak CE<br>· Harremanak toki erakundeekin | · Batzorde iraunkorra<br>· HGHE taldea<br>· NGLKren osoko bilkura<br>· Osasun Taldea |

## 4. HELBURU ESTRATEGIKOAREN EMAITZAK ETA EKINTZAK

**4.1 Eragileek jaso dute planaren alderdi garrantzitsuei buruzko prestakuntza**

- 4.1.1 ekintza. Prestakuntza beharren diagnostikoa egitea, honako alderdi hauekin loturik: zehar-ikuspegiak, ebaluazio kultura, lehentasun geografiko eta sektorialak, garapenaren kontzeptualizazio berria (2030 Agenda) eta herritartasun globalerako hezkuntza.
- 4.1.2 ekintza. Prestakuntza programa bat egitea.
- 4.1.3 ekintza. Diseinaturiko prestakuntza ekintzak egikaritzea.

**4.2 Nafarroako eragileak inplikatu dira plana egikaritzean, ezagutzari, lerrokatzeari eta gogobetetzeari dagokienez**

- 4.2.1 ekintza. Eragileen arteko trukea eta elkar ezagutza sustatzea, bereziki Garapenerako Lankidetzaren Atalaren eta Ekintza Humanitarioaren eta GGKEen artean.
- 4.2.2 ekintza. Planaren edukia hedatzea, webgunean argitaratuz eta beste hedapen ekintza batzuk eginez.

**4.3 Areagotu egin da ebaluazio kultura**

- 4.3.1 ekintza. Ebaluazio protokolo bat prestatzea eta zabaltzea garapenerako lankidetzako esku hartzeetarako.
- 4.3.2 ekintza. Jarraipenari eta ebaluazioari buruzko balioespen elementuak txertatzea,garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan.
- 4.3.3 ekintza. Ebaluazioaren sistematizazioa, garapenerako lankidetzako esku hartzeen azken justifikazioan.
- 4.3.4 ekintza. Ezagutza kudeatzeko plan bat abian jartzea, Nafarroako lankidetzari buruz egindako ebaluazioetatik ateratako ikaskuntzak oinarri harturik.
- 4.3.5 ekintza. Egindako ebaluazioen hedapena.

**4.4. Nafarroako Gobernuaren barne politikek hobetu egin dute Garapen Politikarekiko koherentzia**

- 4.4.1 ekintza. Planeko ekintzak Nafarroako Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda garatzera bideratzea.
- 4.4.2 ekintza. Nafarroako Gobernuko departamentuen inplikazioa lankidetza teknikoko ekintzetan.
- 4.4.3 ekintza. Garapenerako Lankidetzaren Agentzia sortzeko azterlan bat egitea.

## 4. HELBURU ESTRATEGIKOAREN EMAITZAK ETA EKINTZAK

### 4.5. Nafarroako lankidetzak hobetu egin du beste administrazio publiko batzuekiko koordinazioa

- 4.5.1 ekintza. Nafarroako lankidetzaren jarduerei buruzko informazioa info@od bidez
- 4.5.2 ekintza. Estatuko Administrazio Orokorrarekin egindako bileretan eta koordinazio topaketetan parte hartzea (Lurraldearteko Batzordea, Herrialdeak Elkartzeko Batzordearen bilera teknikoak, eta abar).
- 4.5.3 ekintza. Beste autonomia erkidego batzuekin ekintza edo proiektu espezifikoetan parte hartzea eta lankidetzan aritzea (autonomia erkidegoen topaketak; Akitania, EAE eta Nafarroaren arteko hitzarmenen bidez jarduera espezifikoak bultzatzea; hitzarmenak sinatzea mugakide diren edo interes komunak dituzten beste autonomia erkidego batzuekin).
- 4.5.4 ekintza. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziarekin jarduteko protokolo orokorra berritzea eta lankidetza teknikoa sustatzea.
- 4.5.5 ekintza. Nafarroako toki erakundeekin informazioa trukatzea eta jarduerak elkarrekin egitea, bai eta aholkularitza ematea ere, Iruñeko Udalari bereziki.

### 4.6. Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua eztabaidarako eta kontzertaziorako gunea da

- 4.6.1 ekintza. Batzorde iraunkorra aktibatzea, Nafarroako lankidetzari eta planaren jarraipenari buruzko segimendu eta eztabaida organo gisa.
- 4.6.2 ekintza. Garapenerako hezkuntzarako eta osasun lankidetzarako lantaldeak aktibatzea.
- 4.6.3 ekintza. Nafarroako lankidetzaren gai estrategikoak eztabaidatzea Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren osoko bilkuran.

# 5.

# Aldi honetarako esku hartzeko modalitateak eta tresnak

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak jardun modalitate hauen bidez gauzatuko du arlo horretako politika:

- Lankidetza ekonomikoa
- Lankidetza teknikoa
- Laguntza humanitarioa
- Garapenerako hezkuntza

Lehenengo hiru modalitateak (lankidetza ekonomikoa, lankidetza teknikoa eta laguntza humanitarioa) lehendabiziko ardatz estrategikoan sartzen dira (garapenerako lankidetza), eta azkena, berriz, bigarrenean.

III. Plan Zuzentzaile honetan ezarritako helburuetarantz aitzina egiteko, modalitate bakoitzeko tresnak adierazten dira hurrengo grafikoan, zeinak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen, hitzarmenen eta ekintzen deialdien bidez formalizatuko baitira.

III. ardatzak tresna espezifikoak behar ditu, administrazioaren berezko jarduerari eta ardatz honen xedeari egokituak.

13. IRUDIA. **Nafarroako lankidetzaren tresnak**




## 5.1. Lehen ardatz estrategikorako tresnak

### 5.1.1 Lankidetza ekonomikorako tresnak

Atal honetako tresnak norgehiagoka bidezko dirulaguntza deialdiaren bidez garatuko dira, eta Nafarroan egoitza edo ordezkaritza iraunkorra duten GGKEek parte hartzen ahalko dute, bakoitzaren oinarrizko ezaugarriak zehaztuta.

Deialdietan, kontuan hartuko dira mikroekintzetan ezarritako lehentasun geografikoak eta sektorialak, eta proiektuek baremoetan jasoko dute lehentasun hori.

Garapenerako lankidetza programen eta estrategia mistoen kasuan, lehentasunezkotzat jotako herrialdeetan bakarrik jardunen dute; lankidetza teknikoa, berriz, lehentasunezko herrialde orokorretan eta errenta maila ertaineko herrialde espezifikoetan oinarrituko da. Gainera, bermatuko da zehar-ikuspegi guztiak sartzen direla.

Nafarroako lankidetzako eragileen arteko koordinazioa sustatuko da, eta proposamenak batera aurkeztea erraztuko, baldin eta benetako partzuergo lan bati badagozkio eta bertan inplikatutako alde bakoitzaren ekarpena zehazten bada. Esku hartzeen inpaktua hobetzeko, ekintzen jarraipena sustatuko da, epe luzeagoko prozesuak erraztuz. Koordinazioa bilatuko da nazioarteko lankidetzako beste eragile batzuekin, bereziki Espainiako Lankidetzaren MAPen testuinguruan.

| Tresnak | Ezaugarriak |
|---|---|
| **Mikroekintzak** | Ekipamendu ondasunetan edo beste gauza batzuetan inbertsioak egitea helburu duten esku hartzeak, garapenerako proiektu batean erabiltzeko edo denboraren eta diruaren aldetik proiektu horiek bezain garrantzitsuak ez diren jarduketak egiteko.<br>Tresna horrek 20.000-35.000 euroko dimentsio ekonomikoa izanen du. |
| **Proiektuak** | Batez ere tokian-tokian egin beharreko esku hartzeak, zeinen helburua baita herritarren bizi baldintzak hobetzea, laguntza ekonomikoaren, eragileak gaitzearen, giza eskubideak defendatzearen, eragin politikoaren eta beste hainbat ekintzaren bidez.<br>Dimentsio ekonomikoa: 100.000 – 150.000 euro. |
| **Programak** | Urteko proiektuen helburu bera duten esku hartzeak, baina haien bitartez inpaktu handiagoa lortu nahi da jarduketa eremuan, ekarpen handiagoa eginez, hainbat urtetan exekutatuz eta jarraitutasun eta jasangarritasun handiagoko ondorioak bilatuz.<br>Programak: 200.000 – 300.000 euro. |
| **Estrategia mistoak** | Estrategia mistoen bidez, Nafarroako lankidetzaren ekintza integralagoa lortu nahi da, eta epe ertain-luzeko lanaren aldeko apustu garbia lortzeko tresna gisa sortuak dira. Herrialde kideetako erakundeekin elkarlanerako harreman egonkorrak eta iraunkorrak ezartzeko erreminta bat da, eta eskatzen du herrialde horietako garapen prozesuei laguntzen jardutea, bai eta eraldaketarako eta herritartasun globalerako hezkuntzan eta Nafarroako gizartean kontzientziak eta portaerak aldatzera bideratutako sentsibilizazioan ere.<br>Tresna honen bidez, GGKE jakin batzuen lidergo irekia sustatu nahi da, baldin eta GGKE horiek, beren ibilbidea eta gaitasun instituzionala dela eta, eragin handiko jarduerei ekin badiezaiekete. Hortaz, urtean 600.0000 eurokoa izanen da GGKE horien dimentsio ekonomikoa, eta gutxienez 20.000.000 euroko agertoki ekonomiko batean artikulatzea sustatuko da. |

## 5.1.2 Lankidetza teknikorako tresna

Nafarroako Gobernuaren zuzeneko ekintzaren bidez egituratuko da lankidetza teknikoa, edo, hala ez bada, Nafarroako lankidetzako beste eragile batzuek eginikoa sustatuz.

| Tresna | Ezaugarriak |
|---|---|
| **Proiektu propioak** | Gaitasunak sendotzea bultzatzen duten proiektuetan laguntzea, bai eta garatzen ari diren herrialdeen garapen endogenoan zuzenean edo zeharka aritzen diren pertsonen eta antolakundeen gaitasuna sendotzeko proiektuetan ere, aholkularitza teknikoaren, prestakuntzaren eta trebakuntzaren eta ikerketa aplikatuaren bidez; hori guztia Nafarroako administrazio publikoetako eta herrialde bazkideetako profesionalen eta adituen artean ezagutza trukatuz eta transferituz.<br>Proiektu horiek identifikatzeko, diseinatzeko eta gauzatzeko, Espainiako lankidetza ofizialeko beste eragile batzuk izanen dira, batez ere Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia edo beste autonomia erkidego batzuetako lankidetza. |
| **Eragile espezializatuen proiektuak** | GGKEek eta beste eragile espezializatu batzuek (unibertsitateek, erakunde sindikalek eta enpresa erakundeek) identifikatutako, diseinatutako eta egindako esku hartzeak. Haien helburua da garapen bidean dauden herrialdeetako garapen endogenoan zuzenean edo zeharka inplikatutako pertsonen eta erakundeen gaitasunak indartzea, aholkularitza teknikoaren, prestakuntzaren, gaikuntzaren eta ikerketa aplikatuaren bidez; hori guztia, aipatutako eragileen profesionalen eta adituen artean ezagutza trukatuz eta transferituz.<br>Hainbat eragileren arteko ekintza bateratua lehenetsiko da. |

### 5.1.3. Ekintza humanitariorako tresnak

Nafarroak ekintza humanitariora bideratzen dituen funtsen bolumena kontuan harturik, uste da esparru horretan espezializatzea lortu daitekeela Foru Komunitatean presentzia eta lankidetza ibilbidea duten Nazio Batuen erakundeekin sinaturiko hitzarmenen bidez (UNICEFen Espainiako Batzordea, ACNURen Espainiako Elkartea eta UNRWAren Espainiako Batzordea). Hitzarmen horiek larrialdiaren, birgaitzearen eta garapenaren arteko loturaren ikuspegitik jasoko dute ekintza humanitarioa, eta, hala badagokio, lankidetza teknikoaren esparruan ere egin daitezke jarduketak. Dagokion zenbatekoa finkatzeko, agentzia bakoitzak II. Plan Zuzentzailearen indarraldian (2011-2019) lorturiko finantzaketa ehunekoa hartuko da kontuan.

Halaber, berehalako erantzun beharreko proiektuen deialdi bat ezartzea aurreikusten da, zeina banakako ebaluazioaren araubidean antolatuko baita, larrialdi egoerei azkar erantzuteko. Deialdi horretan, laguntza humanitarioan espezializatutako GGKEek parte hartzen ahalko dute.

Sahararrei laguntza espezifikoa ematen ere jarraituko da, Nafarroako Gobernuaren eta Fronte Polisarioaren arteko hitzarmenaren barruan.

| Tresnak | Ezaugarriak |
|---|---|
| **Berehalako erantzuna eskatzen dute proiektuak** | Populazioen aldeko jarduketa ez-diskriminatzaileak, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetatik kalteberenak direnei zuzenduak, hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako muga egoeretarako. Haren oinarrizko helburua da eragindako pertsonen eta komunitateen oinarrizko eta berehalako beharrei erantzutea.<br>Honako jarduketa hauek sustatuko dira: oinarrizko materialak eskuratzea edo bidaltzea; osasun materialak edo ekipamenduak eskuratzea edo bidaltzea; elikadura laguntza; hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako oinarrizko azpiegiturak lehenbailehen berreraikitzea edo birgaitzea.<br>Erantzun beharreko larrialdi humanitarioak eskaera aurkezten den egunetik gertukoa izan behar du, edo aktibo egon behar du eskaera aurkezteko unean —eta ezin da izan eskaera aurkeztu baino hiru hilabete lehenagokoa—. |
| **Fronte Polisarioarekin sinaturiko akordioarekin lotutako proiektuak** | Nafarroako erakundeek Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatu guneetan eta Mendebaldeko Saharako lurraldeetan Fronte Polisarioaren agintaritzapean baldintza latzetan bizirik dirauen saharar herriarekiko elkartasuna adieraztea. Eskualdeko bakearen aldeko ekimenak babesten dira —batez ere Nazio Batuek bultzatutakoak—, kontuan hartzen dutenak errefuxiatuentzako bidezko konponbidea bilatzea.<br>Saharako kanpamentu eta lurraldeetan hainbat ekintza bultzatuko dira, bereziki elikadura laguntzakoak. |
| **Hitzarmenak Nazio Batuen agentziekin** | Laguntza humanitarioko testuinguru orokor baten barruko esku hartzeak jasoko dituzte, zeinak larrialdi fasean krisi humanitario kronikoen eta muturreko ahultasun testuinguruen kasutzat hartzen ahalko baitira. Esku hartzeek berehalako beharrei emanen diete erantzuna eta etorkizuneko garapenean lagunduko dute, epe luzera inpaktu jasangarria eraginez. (LEGL) |

## 5.2. Bigarren ardatz estrategikorako tresnak

Herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailearen arloan, proiektuen tresnari eusten zaio, eta laguntza berezia ematen zaio eskola bidaiarien programari. Deialdietan, ziurtatuko da zehar-ikuspegi guztiak txertatzen direla; halaber, Nafarroako lankidetzako eragileen arteko koordinazioa sustatuko da, proposamenak batera aurkezteko erraztasunak emanez, betiere benetako partzuergo lan bati badagozkio, inplikatutako alderdi bakoitzaren ekarpena zehaztuz; eta, horretaz gainera, ekintzen jarraipena bultzatuko da, epe luzeagoko prozesuak erraztuz.

Gainera, jarraipena eman nahi zaio GGKEen koordinakundearekin sinaturiko hitzarmenari.

Ekintza propioen artean, nabarmentzekoa da Elkartasunaren Nazioarteko Nafarroa Saria, zeinak XVII edizio izan baititu. Atal honetan sartuko dira Nafarroako Gobernuak bultzaturiko eta GGKEekin batera gauzaturiko garapenerako lankidetzaren jarduera

jendaurrean zabaltzeko ekintza guztiak, bai hedabide tradizionaletan zabaldurikoak, bai Internet bidez emanak.

Gainera, plangintzaldi honetan gazte lankideen programari berrekin nahi zaio. Ekintza horren helburua da Foru Komunitateko gazteak sentsibilizatzea, garapen proiektuetan parte hartzea sustatuz.

| Tresnak | Ezaugarriak |
|---|---|
| **Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuak** | Gizartearen sentsibilizazioa eta hezkuntza prozesuak sustatzen dituzten esku hartzeak, zeinetan hiru alderdi lantzen baitira: ezagutzak transferitzea, jarrerak sortzea eta konpromisoak hartzea. Horien guztien helburua izanen da herritarrek oro har (sentsibilizazio ekintzen kasuan) eta irakasleek eta ikasleek (hezkuntza ekintzen kasuan) garapen bidean dauden herrialdeei eragiten dieten arazoen pertzepzio hobea lortzea, mundu interdependentearen gaineko kontzientzia eta ulermen kritikoa izateko, eta elkartasuna eta lankidetza aktiboa bultzatzeko.<br>Eskola Solidarioak programari laguntza berezia ematea, eta programa horretan sartuta dauden eta aurkezten diren proiektuak lehenestea.<br>Dimentsio ekonomikoa: 30.000 – 60.000 euro. |
| **Hitzarmenak eragile estrategikoekin** | Nafarroako GGKEen Koordinakundearen jarduera orokorra babestea, eta, bereziki, garapenerako hezkuntzaren arloan egiten duen lana. |
| **Ekintza propioak** | Elkartasunaren Nazioarteko Nafarroa saria antolatzea urtero.<br>Nafarroako Gobernuaren eta Garapenerako Lankidetzan parte hartzen duten gainerako eragileen jarduna zabaltzeko komunikazio ekintzak.<br>Gazte programak. |

## 5.3. Hirugarren ardatz estrategikorako tresnak

Ardatz honen helburua da erakundeak indartzea, bai elkarte ehuna, bai Nafarroako lankidetza politika bera. Horretarako, jakintza sortuko da funtsezko eragileen prestakuntzaren bidez, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuen inplikazioa baliatuz, gauzaturiko ekintzen hedapen eta informazioaren bidez, ez komunikazio estrategia huts gisa bakarrik, baizik eta kontuak emateko estrategia gisa ere bai. Ildo horretan, garrantzi berezia du ebaluazio kultura areagotzeko helburuak, III. Plan Zuzentzaileari dagokionez lankidetza politikaren ebaluazio estrategikoak eta eraginaren ebaluazioa proposatuz.

| Tresnak | Ezaugarriak |
|---|---|
| **Hitzarmenak** | Espainiako GGKEen Koordinakundearekin sinatuko dira, partaidetza sustatzeko, Nafarroako elkarte ehuna arlo horretan indartzeko eta gizarte eraldaketa sustatuko duen komunikazio eragile izateko, herritar informatuak, kritikoak eta solidarioak garatzearen bidez. |
| **Laguntza teknikorako kontratuak** | Laguntza teknikorako kontratuak sinatuko dira Nafarroako lankidetzaren alderdi estrategikoen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, bai eta aurreikusitako eraginaren ebaluazioa egiteko ere. Era berean, funtsezko eragileak prestatzeko kontratuak egiten ahalko dira lankidetzari dagozkion gaietan. |

# 6.

# Esku hartzeko estrategia honetan parte hartzen duten eragileak

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak ezartzen du zeintzuk diren lankidetzaren eragiletzat hartzen diren erakundeak, eta 14. irudian jasotzen dira.

14. IRUDIA. **Nafarroako lankidetzako eragileak**



## 6.1. Nafarroako lankidetzako eragileak

### 6.1.1. Tokian tokiko bazkideak

Herrialde kide lehenetsietako entitateen artean daude erakunde sozial eta komunitarioak, erakunde publikoak, ekonomia sozialeko erakunde publikoak, ekonomia sozialeko enpresak eta kooperatibak, eta horiek hartuko dituzte Nafarroako lankidetzaren funtsen %80 baino gehiago. Haiek arduratzen dira garapen lehentasunak zehazteaz beren herrialde eta eskualdeetan, jabekuntza demokratikoaren printzipioari jarraituz. Plan honek tokiko bazkideen sendotze instituzionalaren alde egiten du, bai Nafarroako GGKEek sustatutako esku hartzeen bidez, bai Nafarroako Gobernuaren lankidetza teknikoaren esparruan.

### 6.1.2. Nafarroako Gobernua

Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzari buruzko 5/2001 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, Gizarte Eskubideen Departamentuak programatzen eta gauzatzen du lankidetza politika, Nafarroako Gobernuaren jarraibideen arabera. Beraz, departamentu horri dagokio III. Plan Zuzentzaile honetako edukia ezartzea eta garatzea.

Beste departamentuei dagokienez, plan honek garapenerako lankidetzan inplikatzearen alde egiten du, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren eta lehen aipaturiko Garapenerako Politiken Koherentziaren ezarpenaren esparruan. Horretarako, lankidetza teknikoko ekintzetan parte hartzea sustatuko da lehenetsitako sektoreetan, aurretik jaso dugun moduan. Arreta berezia eskaintzen dio Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuak nazioarteko osasun lankidetzan laguntzeari.

Bestalde, aipaturiko 5/2001 Foru Legean aurreikusitakoa indartuko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko langileek garapenerako lankidetzako esku hartzeetan parte hartzeari dagokionez, izan partaidetza hori lankidetza teknikoko proiektuetan, izan garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen, nazioarteko erakundeen edo beste administrazio publiko batzuen jardueretan.

Azkenik, arestian adierazi bezala, komunikazio estrategia bat ezarriko da, Nafarroako Gobernuaren ekintza zabaltzeko Nafarroako gizartearen eta garapenerako lankidetzan parte hartzen duten gainerako eragileen artean, arreta berezia paratuz komunikabideen bidez lortzen den eraginari.

### 6.1.3. Nafarroako toki administrazioak

Nafarroako toki erakundeen garapenerako lankidetza sendotu egin da heldu den mendeko 80ko hamarkadan martxan hasi zenetik, krisi ekonomikoa goiti-beheiti. Nafarroako 100 toki erakundek baino gehiagok parte hartzen dute garapenerako lankidetza ekintzetan, dela zuzenean dirulaguntza deialdien bidez, dela Nafarroako Garapenerako Lankidetzarako Toki Funtsaren bidez. Hezkuntzaren, lehen mailako osasunaren eta uraren sektoreetan kontzentratu da toki administrazioen lankidetza; udalerriek eta kontzejuek hagitz berenak jotzen dituzte sektore horiek, metatutako esperientziagatik. Toki administrazioek hezkuntza eta sentsibilizazio ekimenak ere babesten dituzte Nafarroan. Azken hamar urteetan bi hitzarmen sinatu ditu Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin, Foru Komunitatean ahalik eta herri gehienetan sentsibilizazio ekintzak bultzatzeko.

Estrategien eta inpaktuaren koordinazio handiagoa ahalbidetzeko, III. Plan Zuzentzaile honek planteatzen du segitzea Foru Komunitateko administrazioaren eta Nafarroako toki administrazioen arteko egungo lankidetza harremanekin, batez ere informazioa eta aholkularitza trukatzeari dagokionez, betiere udal autonomia errespetatuz. Era berean, aitzina eginen da garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren arloko zereginen banaketan.

### 6.1.4. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak

5/2001 Foru Legeak dioenari jarraikiz, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak (GGKE) Nafarroako Foru Komunitatearen solaskide iraunkor eta lehentasunezkoak dira garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan.

GGKEak Nafarroako gizartearen elkartasunaren adierazgarri dira, dela herrialde elkartuetako biztanleekin eta haien gizarte erakundeekin zuzenean lan egiten dutelako, dela herrialde horietako errealitatea komunikatzeko eta zabaltzeko duten gaitasunagatik —eta, hortaz, Nafarroako gizartearen garapenerako hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako—, baina baita lankidetza politiken diseinuan proposamenak egiteko duten gaitasunagatik ere. GGKEen eginkizunen artean, honako hauek ageri dira: herritarrak nazioarteko giza eskubideen aldeko konpromiso, elkartasun eta defentsa balioen inguruan egituratzea, xede herrialdeetan garapen zerbitzuak eta ekintza humanitarioak ematea, eta botere publikoen gain eragitea, giza garapen jasangarriaren helburuekin koherentea den politiken agenda bat sustatzeko.

Aintzatetsirik dago Nafarroako GGKEen Koordinakundearen zeregin berezia, zeinak egiteko garrantzitsua baitu Nafarroako erakundeak indartzean; izan ere, GGKEak

indartzeko eta sare soziala sortzeko espazio bat da prestakuntza, komunikazio eta elkarrizketa arloetan, bai eta garapenerako hezkuntza bultzatzeko eta koordinatzeko ere.

### 6.1.5. Nazio Batuen agentziak eta haiekin kideturiko GKEak

Nazio Batuen agentziak Nazio Batuen Elkartearen sistemaren parte dira, estatu kideek sinatutako nazioarteko itunetatik sorturiko agindu zehatzak betetzeko sortuak. Agentzia espezializatuak nazioarteko erakunde independenteak dira, eta estatu kideen ekarpenekin eta beste hainbat ekarpenekin finantzatzen dira, haiekin kideturiko GGKEen bidez.

Eremu aldeaniztunean, Nazio Batuen agentzietako batzuekin lankidetzan aritua da Nafarroako Gobernua, bereziki UNICEF, ACNUR eta UNRWArekin, haiekin kideturiko eta Nafarroan ezarririko GKEen bidez. Lankidetza horren berezitasuna eta nazioarteko itunetatik eratortzen diren arau juridiko espezifikoak kontuan harturik, egokia da eragile horiei beren kontsiderazioa ematea betetzen duten esparru aldeaniztunean. Lan ildo espezifiko hori koherentea da azken urteetan garatu diren estrategia aldeaniztunen garapenarekin —bai Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren esparruan, bai lankidetza deszentralizatuan—.

Hasiera batean, eta Nafarroan lan egiten duten agentzien ezaugarriengatik, laguntza humanitarioaren eta muturreko ahultasun testuinguruen eremuan kokatu da estrategia aldeaniztuna. Helburua da, batetik, Nafarroako lankidetzak ekintza humanitarioan duen inplikazioa indartzea, eta, bestetik, nazioarteko erakunde horiekin lankidetza ildo espezifiko bat ezartzea.

### 6.1.6. Unibertsitateak

Unibertsitateak garapenerako lankidetzaren arloko prestakuntza eta ikerketa jarduera gauzatzen ari dira, eta, hori hala izanik, uste da egiteko garrantzitsua izan dezaketela hainbat arlotan: beste unibertsitate erakunde batzuekin lankidetzan aritzea (nazionalak zein beste herrialde batzuetakoak); garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateekin lankidetzan eta trukean aritzea; ezagutzak eta teknologia transferitzea; 2030 Agendari buruzko sentsibilizazioa lantzea; pertsonen eskubideen defentsari, justizia klimatikoari, genero berdintasunari eta arazo komunen aurreko erantzukizunari lotutako balioak sendotzea unibertsitate komunitatean; eta irakaskuntza eta ikerketa sustatzea garapenerako lankidetzaren alorrean. Era berean, erreferentziazko espazio berritzaile bihur daitezke komunitate barneratzaileak eta jasangarriak lortzeko eraldaketa

prozesuetarako. Garapenerako lankidetza unibertsitateen ildo estrategiko gisa txertatzeak lotura estua du nazioartekotze prozesuekin, unibertsitateko gizarte erantzukizunarekin eta gizarte ekintza eta elkartasuna bultzatzearekin.

### 6.1.7. Erakunde sindikalak

Nafarroako lankidetzak bere gain hartzen duen eskubideetan oinarrituriko ikuspegiak esplizituki biltzen ditu lan eskubideak eta eskubide sindikalak. Sindikatuen nazioarteko lankidetzaren helburuak erakunde sindikalen gaitasunak indartzera daude bideraturik, eta justizia soziala, gizarte babesa eta gizarteratzea errazten dituzte, bai eta eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak erabat gauzatu ahal izatea eta desberdintasunak murriztea ere.

Nafarroako erakunde sindikal nagusiek lan eskubideak, lan baldintzen babesa eta langileen interesak defendatzen dituzte, eta eginahal horrek posizio estrategikoan kokatzen ditu sindikatuok, herrialde kideetako langileen aldaketa prozesuetan eta elkarte egiturak sendotzen esku hartu ahal izateko. Herrialde horietako erakunde sindikalak eta sozialak indartzeak zeregin aktiboa dakar Nafarroako sindikatuentzat: azken batean, erabakiak hartzeko eta elkarrizketarako guneak indartzea erran nahi baitu. Lan duina lortzea da garapenerako lankidetza sindikalaren helburu nagusia —baina ez baztertzailea—. Garapen Jasangarrirako Agendaren 8. helburua da hori, zeina Lanaren Nazioarteko Erakundeak definitu baitzuen 1999an, oinarrizko lau zutaberen inguruan: laneko eskubideak, enplegu aukerak, babes soziala eta elkarrizketa soziala. Horietako bakoitzak, gainera, helburu zabalagoak lortzeko eginkizuna betetzen du, hala nola gizarteratzea, pobrezia desagerraraztea, demokrazia indartzea, garapen integrala eta errealizazio pertsonala.

Beste alde batetik, egiteko hagitz garrantzitsua dute Nafarroako gizartea sentsibilizatzeko eta garapenerako hezkuntzaren alorrean, bai afiliatuen bidez, bai hezkuntza sisteman duten eginkizun estrategikoaren bidez. Eragin nabarmena dute, halaber, eremu ez-formalean eta eragin politikoaren bidez, giza eskubideez eta planetaren mugak errespetatzeaz unibertsalki gozatzea eragozten duten egitura moral, sozial, ekonomiko eta kulturalak eraldatzeko.

### 6.1.8. Enpresa sektorea

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Legearen aldaketak Nafarroako lankidetzaren eragileen artean sartzen ditu garapenerako lankidetza xede duten

erakunde eta pertsona juridikoak. 2030 Agendaren arabera, enpresa sektorea funtsezko eragilea da garapen erronken zati bati erantzun teknikoak eta ekonomikoki fidagarriak emateko, bai eta garapen jasangarriko helburuak lortzeko finantza baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak mobilizatzeko ere. Espazio zabalagoa ezartzen du eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzarako, bai eta iragazkortasun handiagoa izateko ere garapenerako lankidetzako politiken eta ekintzen eta nazioartekotzeari laguntzera bideraturikoen artean.

Banakako enpresek ere —bereziki ekonomia solidariokoek— zeregin garrantzitsua izan dezakete Nafarroako lankidetzan, gizarte erantzukizun korporatiboarekin loturik. Haien konpromiso solidarioa garapen maila apala duten hirugarren herrialdeetako lurraldeetara hedatzen da lankidetza proiektuen bidez. Proiektu horien xedea da toki mailan hazkunde inklusiboa lortzea, eta laguntza eskaintzen dute emakumeek, gazteek eta kolektibo ahulek ekonomia eta enpresa proiektuak sor ditzaten, guztia ere haien baliabideak areagotzeko, ingurune soziokulturala hobetzeko eta gizartea mobilizatzeko gaitasuna hobetzeko. Plan zuzentzaile honek aukera ematen du Nafarroako enpresek eta haren mendeko erakundeek eta GGKEek eta beste eragile batzuek lankidetza handiagoa izan dezaten garapenerako ezagutzaren eta berrikuntzaren transferentzia dakarten lankidetza proiektuak gauzatzeko.

## 6.2. Eragileen arteko sinergiak

### 6.2.1. GKEEen elkarteak

Urteetan zehar, GGKEak proiektu eta ekintza komunetan elkartzen direnez, hainbat talde eratu dira nortasun juridikoarekin edo gabe, eta III. Plan Zuzentzaile honek egokitzat jotzen du talde horiei eustea, baldin eta frogatzen bada balio erantsia ematen dutela, esku hartzeen inpaktuari, eraginkortasunari eta efikaziari dagokienez.

Bereziki garrantzitsua da garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren eremuan, bat-egite horiek emaitza garrantzitsuak eman baitituzte esparru horietan. Hala, ebaluatu egin behar dira emaitza horiek, hala badagokio, lortutako inpaktua berresteko.

### 6.2.2. Sarean lan egitea

Bereziki garrantzitsua da Nafarroako lankidetzako eragileen arteko elkarlana sustatzea, eragile bakoitzak bere indarguneei balioa emateko. Lankidetza teknikoaren esparruan,

bereziki sustatuko da lan hori proiektu pilotuen bidez, eta horietan hagitz presente egonen da aktoreen arteko lankidetza lana ziklo osoan zehar.

Garapenerako Politiken Koherentziaren ikuspegitik, bereziki garrantzitsuak izanen dira Nafarroako Gobernuko departamentuen arteko baterako jarduketak.

# 7.

# Aurrekontu esparrua

## 7.1. Gutxi gorabeherako aurrekontua

Garapenerako laguntza ofizialak dira biderik garrantzitsuenetako bat garapenerako nazioarteko lankidetzan, eta komenigarria da plan honek aurrekontu esparru jakin bat izatea, planaren garapena bermatze aldera. Hori horrela, 2021-2024 aldirako esparru horren helburu gisa ezartzen da Nafarroako Gobernuaren legegintzaldiko akordio programatikoan ezarritako garapenerako laguntza ofizialen aurreikuspena; hala ere, helburu hori bete ahal izateko, nahitaezkoa izanen da COVID-19aren pandemiak utzitako krisialditik berreskuratzeko aldiak horretarako aukera ematea. Hori dela eta, ekitaldi bakoitzerako onartzen diren funtsekin garatuko da plan honen edukia. Funts horietan, aurrekontu aurreikuspen zehatzak jasoko dira eta gauzatu beharreko ekintzak egokituko, ezartzen diren aurrekontuen arabera betiere.

Garrantzitsutzat jotzen da plana indarrean dagoen bitartean Batasuneko funtsak lortu ahal izatea, Nafarroako lankidetzaren jarduerak indartu ahal izateko.

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren gaineko garapenerako laguntza ofizialen ehunekoa[16], Nafarroako Gobernua sostengatzen duen Akordio Programatikoan jasota dagoen moduan:

2021: % 0,45
2022: % 0,50
2023: % 0,60
2024: % 0,70

16. Ehuneko hori Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluari 2020ko urtarrilaren 31n aurkeztutako akordioaren arabera kalkulatuko da.

2021. eta 2022. urteetan, pandemiak Nafarroako ekonomian izaniko inpaktu zuzena dela eta, lankidetzarako laguntza ofizialen zenbateko absolutua gutxienez 13.636.682,00 eta 16.000.000 bitarte izanen da.

2023. eta 2024. urteetan, plan hau idazterakoan dugun ziurgabetasun egoera aintzat harturik, kalkulatzen da gutxieneko aurrekontu absolutua 18.000.000 izanen dela 2023an eta 2024an, berriz, 20.000.000 euro.

## 7.2. Garapenerako laguntza ofizialen banaketa ehunekotan

Arestian deskribatutako tresnei dagokienez —haien bidez gauzatzen da Nafarroako Gobernuaren jarduera garapenerako lankidetzan—, ehuneko banaketa bat ezartzen da lurraldetasuna, modalitatea eta tresna kontuan harturik. Banaketa hori gutxi gorabeherakoa da, eta, besteak beste, deialdiak diseinatzerakoan banaketa hori kontuan hartuta lortuko da.

7. taulan dago jasota lortu beharreko ehunekoen banaketa, eta, funtsean, honako adierazle hauetan laburbiltzen da:

- *Lurraldetasuna:* Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizialen banaketa %87koa dela zenbatesten da herrialde kideetan eginiko esku hartzeetarako, eta %13koa Nafarroako ekintzetarako (garapenerako hezkuntza, sentsibilizazioa, erakundeak indartzeko ekintzak eta administrazio gastuak).
- *Modalitateak*: Kalkuluen arabera, lankidetza ekonomikoa %73 ingurukoa da; lankidetza teknikoa %1,5 gutxi gorabehera; ekintza humanitarioa %12,5; garapenerako hezkuntza ekintzak %7 inguru dira; erakundeak indartzea %2; eta Nafarroako Gobernuaren kudeaketako administrazio kostuak, azkenik, %4, inguru.
- *Ekintza mota eta tresnak*: Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizial guztietatik, GGKEek eta beste erakunde batzuek finantzaketa tresnen bidez eginikoak %94 inguru izanen dira, eta administrazioak zuzenean eginikoak, berriz, %6 inguru. Horrez gain, estrategia mistoen tresna ezartzeko, gutxienez 20.000.000 euroko aurrekontua ezarri da. Agertoki horretan, inpaktu handieneko tresnen artean banatuko da portzentajea: programa eta estrategia mistoak.
- *Eragileak*: Taulan agertzen ez bada ere, eragile bakar batek garapenerako laguntza ofizialaren %8 bideratzen ahal du gehienez ere.

7. TAULA. **Gutxi gorabeherako aurrekontu banaketa, lurraldeen, modalitatearen eta jarduera eta tresna motaren arabera**

<table>
<tr><th rowspan="3">Lurraldetasuna</th><th rowspan="3">Modalitateak</th><th colspan="4">Ekintza mota eta tresnak</th></tr>
<tr><th rowspan="2">Ekintza zuzena (%6,3)</th><th colspan="3">Acción indirecta (93,7%)</th></tr>
<tr></tr>
<tr><td rowspan="3">I. ardatza: herrialde kideetako esku hartzea (%87)</td><td>Lankidetza ekonomikoa (%73)</td><td></td><td>Mikroekintzak (%3)</td><td>Proiektuak (%26)</td><td>Programak (%44)<br>(Programak %34 / Estrategia mistoak %10)</td></tr>
<tr><td>Lankidetza teknikoa (%1,5)</td><td>Proiektuak (%1)</td><td>Eragile espezializatuen deialdia (%0,5)</td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Ekintza humanitarioa (%12,5)</td><td></td><td>Berehalako erantzuna emateko deialdi irekia (%1)</td><td>Saharar herriarekin lorturiko akordioa (%3)</td><td>Hitzarmenak Nazio Batuen agentziekin (%8,5)</td></tr>
<tr><td rowspan="3">II. eta III. ardatzak. Nafarroan eginiko jarduerak (%13)</td><td>Garapenerako hezkuntza (%7)</td><td>Gazte programak (%0,5)</td><td>Garapenerako laguntza eta sentsibilizazio deialdia (%6,5)</td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Indartze instituzionala (%2)</td><td>«Indartze instituzionala» ardatzeko ekintzak (%0,8)</td><td>Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin sinaturiko hitzarmena (%1)</td><td>Saharar herriarekin sinaturiko akordioa (%0,2)</td><td></td></tr>
<tr><td>Administrazio gastuak (%4)</td><td>Hainbat kostu: langileak, laguntza teknikoa... (%4)</td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

Eonako tasa hauek hartuko dira kontuan Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizialen segimendua egiteko, baita aurreko koadroan zehazturiko lurraldearen, modalitatearen eta jarduera motaren araberako aurrekontu banaketa portzentualaren jarraipena egiteko ere:

<table>
<tr><td rowspan="4">Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizialak</td><td>Garapenerako laguntza ofizialak guztira</td></tr>
<tr><td>Garapenerako laguntza ofizialen ehunekoa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren gainean</td></tr>
<tr><td>Garapenerako laguntza ofizialak per capita</td></tr>
<tr><td>Garapenerako laguntza ofizialen ehunekoa, Nafarroako Gobernuaren BPGd-aren gainean</td></tr>
<tr><td rowspan="5">Garapenerako laguntza ofizialen banaketa (7. taularen arabera)</td><td>Banaketaren ehunekoa lurraldearen arabera</td></tr>
<tr><td>Banaketaren ehunekoa modalitateen arabera</td></tr>
<tr><td>Banaketaren ehunekoa ekintza motaren eta tresnaren arabera</td></tr>
<tr><td>Hiru adierazleen baterako banaketaren ehunekoa</td></tr>
<tr><td>Eragile bakarraren bitartez bideratzeko ehunekoaren gehienekoa</td></tr>
</table>

# 8.

# Programa eragileak, jarraipena eta ebaluazioa

## 8.1. Programa operatiboak eta planaren segimendua

Plana gauzatzeko eta haren jarraipena egiteko, urteko plan operatiboak egitea aurreikusten da indarrean dagoen urteetan, jardueren programazio operatiboa eginez eta egindakoaren jarraipenaren arabera doituz eta berriro orientatuz. Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluak ebatziko du hori guztia.

## 8.2. Ebaluazioa

Nafarroa lankidetzarekin konprometitutako komunitatea da, eta, beraz, hobetu egin nahi du beti, gero eta kalitate maila handiagoa lortu. Ebaluazioa sustatu nahi da oro har, eskuratutako ikaskuntzetatik abiatuta hobetzeko partaidetza prozesu gisa, emaitzak, lorpenak eta eragina bermatuko dituzten esku hartzeak bultzatzeko. Eta, orobat, etengabeko hobekuntzako prozesu espezifiko gisa, bai barnekoak (planaren jarraipena, lankidetza teknikoa), bai lankidetzara bideratutako funts publikoen kontrola eta gardentasuna gauzatzekoak.

Espainiako lankidetza ebaluatzeko politikan ezartzen den bezala, ebaluazioa informazioa biltzeko prozesu sistematiko eta planifikatua da, garapenerako lankidetzako esku hartze, politika edo estrategia bat modu kritiko eta objektiboan aztertzeko, interpretatzeko eta balioesteko, barnean harturik haren diseinua, praktikan jartzea, kudeaketa egitura eta emaitzak. Partaidetzako eta hausnarketa sistematiko eta iraunkorreko prozesu gisa egituratzen da, parte hartzen duten eragileen arteko koordinazio espazioen bidez.

Plan honek ebaluazioaren orientazio estrategikoaren alde egiten du, eta bi ataletan operatibizatuko da: emaitzen esparruaren ebaluazioa (esparru estrategikoa) eta garapenerako laguntza ofizialeko funtsekin egindako esku hartzeen ebaluazioa. Horretarako, **protokolo** bat eginen da, alderdi hauek zehaztuz: ebaluazio tresnak; garapenerako lankidetzako ekintzak ebaluatzeko metodologia; eta emaitzak gizarteratzeko mekanismoak, kontuak emateko mekanismo gisa, bai eta gizarteari Nafarroako lankidetzaren berri emateko tresna gisa ere, herritarren sentsibilizazioa sustatuz.

Azkenik, aipatu behar da Nafarroako Gobernuak finantzatutako esku hartzeen jarraipena *in situ* egitea sartuko dela protokolo honen esparruan, eta Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren barruko jarraipen instituzionaleko bidaietan nahiz Garapenerako Lankidetzaren eta Ekintza Humanitarioaren Ataleko langileen jarraipen bidaia teknikoetan egituratu beharko dela.

## 8.3. Emaitzen eta adierazleen esparrua

Lehendabiziko helburu orokorraren lorpenaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, aurkezten da zer emaitza esparru lortu behar den ardatz estrategiko bakoitzerako aurreikusitako ekintzekin, lorpena eta prozesua neurtzeko adierazleekin, gauzatze urteekin, adierazlearen abiapuntuko egoerarekin (hala badagokio) eta lortu nahi den xedearekin.

| I. ARDATZA. Garapeneko eta ekintza humanitarioko prozesuak laguntzea herrialde kideetan | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Inpaktua hobetzea herrialde kideetan gauzaturiko lankidetza ekonomikoko eta teknikoko esku hartzeetan.** | | | | |
| **Emaitzak/ekintzak** | **Emaitzen adierazleak/ Egikaritzearen adierazleak** | **Urtea** | **Oinarrizko lerroa** | **Jomuga** |
| **1.1 EMAITZA. Esku hartzeak lehenetsitako eremuetan kontzentratzen dira** | **Lehenetsitako 13 herrialdeetan eta bi herritan banaturiko garapenerako laguntza ofizialaren ehunekoa** | 2021-2024 | %80 | %80 |
| | **Gutxiago aitzinaturiko herrialdeetan banaturiko garapenerako laguntza ofizialaren ehunekoa** | 2021-2024 | %22 | %25 |
| 1.1.1 ekintza. Proiektuen eta mikroekintzen baremoak egokitzea, lehenetsitako 13 herrialde eta 2 herrietan eta gutxien aitzinaturiko herrialdeetan egindako esku hartzeak lehenesteko. | Egokituriko deialdien ehunekoa | 2021 | | %100 |
| 1.1.2 ekintza. Lehenetsitako herrialdeetan egiten diren programen eskakizunetan eta lankidetza teknikoan sartzea. | Egokituriko deialdien ehunekoa | 2021 | | %100 |
| 1.1.3 ekintza. Baremoak egokitzea giza garapenaren indize txikiagoa duten eskualdeetan esku hartzeak lehenesteko. | Egokituriko deialdien ehunekoa | 2021 | | %100 |
| **1.2 EMAITZA. Esku hartzeak lehentasunezko bost sektoreetan biltzen dira: osasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, landa garapen jasangarria, emakumeak ahalduntzea, tokiko gizarte zibila eta gobernantza demokratikoa.** | **Banaturiko garapenerako laguntza ofiziala, bost sektoreotara zuzendurik** | 2021-2024 | %85 | %90 |
| 1.2.1 ekintza. Proiektuen eta mikroekintzen baremoak egokitzea, lehentasunezko 5 sektoreetan egindako esku hartzeak lehenesteko | Egokituriko deialdien ehunekoa | 2021 | | %100 |
| 1.2.2 ekintza. Lehentasunezko 5 sektoreetan egiten diren programen betekizunetan sartzea | Egokituriko deialdien ehunekoa | 2021 | | %100 |
| 1.2.3 ekintza. Lankidetza teknikoko ekintzak gauzatzea lehentasunezko sektoreetan | Gauzaturiko lankidetza teknikoko ekintzen kopurua | 2021-2024 | | 4 |
| | 5/2001 Foru Legearen 24. artikuluan bildutako enplegatu publiko baimenduen kopurua | 2021-2024 | | 30 |
| 1.2.4 ekintza. Esku hartze guztietan dagokion garapen jasangarriko helburuaren adierazle egokiak sartzea | Lehenetsitako garapen jasangarriko helburuen adierazleekin egokituriko datu baseak eta formularioak | 2021-2024 | | %100 |

| **I. ARDATZA. Garapeneko eta ekintza humanitarioko prozesuak laguntzea herrialde kideetan** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Inpaktua hobetzea herrialde kideetan gauzaturiko lankidetza ekonomikoko eta teknikoko esku hartzeetan.** | | | | |
| **Emaitzak/ekintzak** | **Emaitzen adierazleak/ Egikaritzearen adierazleak** | **Urtea** | **Oinarrizko lerroa** | **Jomuga** |
| **1.3 EMAITZA. Lankidetza ekonomiko eta teknikoko tresnetan behar bezala integratutako zehar-ikuspegiak** | **Zehar-ikuspegien baremoetako batez besteko puntuazioaren gehikuntzaren ehunekoa** | 2024 | | %30 |
| 1.3.1 ekintza. Lankidetza tresnetan zehar-ildoak aplikatzeko gida bat egitea | Dokumentua prestaturik | 2022 | | 1 |
| 1.3.2 ekintza. Tresnen baremazioa egokitzea, zehar-ildoak nola txertatu zehaztuz | Egokituriko deialdien ehunekoa | 2022 | — | %100 |
| 1.3.3 ekintza. Nafarroako GGKEetan generoari, giza eskubideei eta ingurumenari buruzko politikak sustatzea | Genero politika duten GGKEen ehunekoa | 2024 | | %75 |
| | Giza eskubideen politika duten GGKEen ehunekoa | 2024 | | %75 |
| | Ingurumen politika duten GGKEen ehunekoa | 2024 | | %75 |

| **I. ARDATZA. Garapenerako eta ekintza humanitarioko prozesuei laguntzea** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Ekintza humanitarioaren inpaktua eta eraginkortasuna hobetzea** | | | | |
| **Emaitzak/ekintzak** | **Emaitzen adierazleak/ Egikaritzearen adierazleak** | **Urtea** | **Oinarrizko lerroa** | **Jomuga** |
| **2.1 EMAITZA. Handitu egin da Nafarroako ekintza humanitarioaren kalitatea** | **Larrialdien aurreko erreakzio denbora** | 2024 | | hilabete |
| | **«Ahazturiko krisietan» izaniko esku hartzeen kopurua** | 2024 | 3 | 4 |
| 2.1.1 ekintza. Nazio Batuen agentzia espezializatuekin hitzarmen estrategikoak formalizatzea | Sinatutako hitzarmen kopurua | 2021-2024 | — | 3 |
| 2.1.2 ekintza. Saharako herriari laguntzeko urteko plan operatiboa formalizatzea | Planak formalizaturik | 2021-2024 | — | 4 |
| 2.1.3 ekintza. Larrialdi faseetan berehalako erantzuna antolatzea | Erantzuna artikulaturik | 2021 | — | 1 |
| 2.1.4 ekintza. Grand Bargain edo akordio handiaren eta birgaitze eta garapenaren arteko lotura konpromisoak biltzea | Auzi hori kontuan hartu duten esku hartzeen ehunekoa | 2021-2024 | — | %100 |
| 2.1.5 ekintza. Zehar-ikuspegiak biltzea ekintza humanitarioetan | Auzi hori kontuan hartu duten esku hartzeen ehunekoa | 2021-2024 | | %100 |

| **II. ARDATZA. Garapenerako hezkuntza** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **3. HELBURU ESTRATEGIKOA. Beharrezko ezagutzak, gaitasunak, balioak eta jarrerak sustatzea herritarrek konpromisoa izan dezaten mundu bidezkoagoa, baketsuagoa, toleranteagoa, inklusiboagoa, jasangarriagoa eta seguruagoa eraikitzeko.** | | | | |
| **Emaitzak/ekintzak** | **Emaitzen adierazleak/ Egikaritzearen adierazleak** | **Urtea** | **Oinarrizko lerroa** | **Jomuga** |
| **3.1 EMAITZA. Berrikusi eta eguneratu egin dira garapenerako hezkuntzako prozesuak, herritar globalentzako hezkuntza eraldatzailearen kontzeptuaren arabera** | **Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluko garapenerako hezkuntzaren lantaldeak hezkuntza horrekin duen gogobetetze maila** | 2024 | — | 10etik 8 |
| 3.1.1 ekintza. Garapenerako hezkuntzaren estrategia eguneratzea, Nafarroako lankidetzako eragile guztien adostasunarekin | Dokumentua eguneraturik | 2021 | — | 1 |
| 3.1.2 ekintza. Garapenerako hezkuntzan eta sentsibilizazioan zehar-ildo edo ikuspegiak aplikatzeko gida bat prestatzea | Dokumentua prestaturik | 2021 | — | 1 |
| 3.1.3 ekintza. Deialdiak egokitzea garapenerako hezkuntzaren estrategia berrikusira eta zehar-ikusmoldeen operatibizaziora | Egokituriko deialdien ehunekoa | 2022-2024 | — | %100 |
| 3.1.4 ekintza. Berrikuntza pedagogikoa baremazioan sartzea | Berrikuntza pedagogikoko programak dituzten eskola solidarioetako ikastetxeen ehunekoa | 2022-2024 | — | %80 |
| 3.1.5 ekintza. Nafarroako Elkartasunaren Nazioarteko Saria sendotzea, garapenerako hezkuntza tresna gisa | Eginiko prestakuntza ekintzen kopurua | 2024 | — | 6 |
| **3.2 EMAITZA. Herritar guztiei zabaltzen zaizkie Nafarroako lankidetzaren esku hartzeak** | **Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluko herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailearen lantaldeak lankidetzaren gaineko informazioa hedatzearekin duen gogobetetze maila** | 2024 | — | 10etik 8 |
| 3.2.1 ekintza. Nafarroako Gobernuaren garapenerako lankidetza ekintzari buruzko komunikazio protokoloa prestatzea | Dokumentua prestaturik | 2021 | — | 1 |
| 3.2.2 ekintza. Nafarroako lankidetzak finantzatutako esku hartzeei buruzko informazioa aldian-aldian bidaltzea komunikabideei | Bidalitako prentsa oharren hiru hileko batez bestekoa | 2021-2024 | — | 2 |
| 3.2.3 ekintza. Lankidetzaren webgunea (Nafarroako Gobernuaren ataria) komunikazio estrategiara egokitzea | Webgunea egokiturik | 2021-2024 | — | 1 |
| 3.2.4 ekintza. Nafarroako lankidetzari buruzko informazioak aldian-aldian helaraztea Espainiako lankidetzaren webgunera | Bidalitako albisteen hiru hileko batezbestekoa | 2021-2024 | — | 1 |

| III. ARDATZA. Indartze instituzionala | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **4. HELBURU ESTRATEGIKOA. Nafarroako lankidetzaren eragileen gaitasunak hobetzea.** | | | | |
| **Emaitzak/ekintzak** | **Emaitzen adierazleak/ Egikaritzearen adierazleak** | **Urtea** | **Oinarrizko lerroa** | **Jomuga** |
| **RESULTADO 4.1 Los actores han recibido formación sobre los aspectos relevantes del Plan** | **Nº de entidades distintas que han participado en las acciones formativas** | 2022-2024 | — | 35 |
| | **Nº de personas que ha participado en las acciones formativas (desagregadas por sexo)** | 2022-2024 | — | 100 |
| 4.1.1 ekintza. Prestakuntza beharren diagnostikoa egitea, honako alderdi hauekin loturik: zehar-ikuspegiak, ebaluazio kultura, lehentasun geografiko eta sektorialak, garapenaren kontzeptualizazio berria (2030 Agenda) eta herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea. | Txostena bidalita | 2021 | — | 1 |
| 4.1.2 ekintza. Prestakuntza programa bat egitea. | Dokumentua prestaturik | 2021 | — | 1 |
| 4.1.3 ekintza. Diseinaturiko prestakuntza ekintzak egikaritzea | Prestakuntza ekintzen kopurua | 2021-2024 | — | 4 |
| **4.2 EMAITZA. Nafarroako eragileak inplikatu dira plana egikaritzean, ezagutzari, lerrokatzeari eta gogobetetzeari dagokienez** | **Eragileek planaren gainean adierazi duten ezagutza maila** | 2024 | 10etik 6 | 10etik 8 |
| | **Eragileek planaren gainean adierazi duten gogobetetze maila** | 2024 | 10etik 6 | 10etik 8 |
| 4.2.1 ekintza. Eragileen arteko trukea eta elkar ezagutza sustatzea, bereziki Garapenerako Lankidetzaren Atalaren eta Ekintza Humanitarioaren eta GGKEen artean. | GGKEen egoitzetara eginiko bisita kopurua | 2021-2024 | | 30<br>40 |
| GGKEen eta atalaren artean eginiko bilera kopurua | Nº de acciones de difusión | 2021 | — | 4 |
| **4.3 EMAITZA. Areagotu egin da ebaluazio kultura** | **Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren gogobetetze maila ebaluazioarekin** | 2024 | 7 | 10etik 8 |
| 4.3.1 ekintza. Ebaluazio protokolo bat prestatzea eta zabaltzea garapenerako lankidetzako esku hartzeetarako | Dokumentua prestaturik | 2022 | | 1 |
| | Hedapen ekitaldien kopurua | | | 3 |
| 4.3.2 ekintza. Jarraipenari eta ebaluazioari buruzko balioespen elementuak txertatzea, lankidetzarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan | Oinarri arauemaileetan segimendu eta ebaluazio irizpideak txertatu dituzten deialdien kopurua | 2022-2024 | | 4 |
| 4.3.3 ekintza. Ebaluazioaren sistematizazioa, garapenerako lankidetzako esku hartzeen azken justifikazioan | Dokumentua prestaturik | 2024 | | 1 |

| III. ARDATZA. Indartze instituzionala | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **4. HELBURU ESTRATEGIKOA. Nafarroako lankidetzaren eragileen gaitasunak hobetzea.** | | | | |
| **Emaitzak/ekintzak** | **Emaitzen adierazleak/ Egikaritzearen adierazleak** | **Urtea** | **Oinarrizko lerroa** | **Jomuga** |
| 4.3.4 ekintza. Ezagutza kudeatzeko plan bat abiaraztea, Nafarroako lankidetzari buruz egindako ebaluazioetatik ateratako ikaskuntzak oinarri harturik. | Dokumentua prestaturik | 2024 | | 1 |
| 4.3.5 ekintza. Egindako ebaluazioen hedapena. | Ministeriora bidalitako dokumentuen kopurua | | | 1 |
| | Egindako hedapen jardueren kopurua (prentsa, webgunea, jardunaldiak) | | | 4 |
| | Urteko memoria hedatzea departamentuaren webgunean | | | 1 |
| | Eginiko eta zabalduriko jardunbide egokien kopurua | | | 1 |
| **4.4 EMAITZA. Nafarroako Gobernuaren barne politikek hobetu egin dute Garapen Politikarekiko koherentzia** | **Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren gogobetetze maila kontseiluarekin** | 2024 | 5 | 10etik 8 |
| 4.4.1 ekintza. Plan zuzentzaileak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda Nafarroan ezartzeari eta garapenerako politiken koherentziari eginiko ekarpenaren segimendua | Jakinarazitako datuen kopurua | 2021-2024 | — | 4 |
| 4.4.2 ekintza. Nafarroako Gobernuko departamentuen inplikazioa lankidetza teknikoko ekintzetan | Lankidetza teknikoko proiektuen kopurua | 2021-2024 | — | 3 |
| 4.4.3 ekintza. Garapenerako Lankidetzaren Agentzia sortzeko azterlan bat egitea | Azterketa eginik | | | 1 |
| **4.5 EMAITZA. Nafarroako lankidetzak hobetu egin du beste administrazio publiko batzuekiko koordinazioa** | **Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren gogobetetze maila koordinazioarekin** | 2024 | 6 | 10etik 8 |
| 4.5.1 ekintza. Nafarroako lankidetzaren jarduerei buruzko informazioa info@aod bidez | info@aod-i jakinarazitako esku hartzeen ehunekoa | 2021-2024 | — | %100 |
| 4.5.2 ekintza. Estatuko Administrazio Orokorrarekin egindako bileretan eta koordinazio-topaketetan parte hartzea (Lurraldearteko Batzordea, Herrialdeak Elkartzeko Batzordearen bilera teknikoak, eta abar). | Urtean eginiko bilera-kopurua | 2021-2024 | — | 7 |

| **III. ARDATZA. Indartze instituzionala** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **4. HELBURU ESTRATEGIKOA. Nafarroako lankidetzaren eragileen gaitasunak hobetzea.** | | | | |
| **Emaitzak/ekintzak** | **Emaitzen adierazleak/ Egikaritzearen adierazleak** | **Urtea** | **Oinarrizko lerroa** | **Jomuga** |
| 4.5.3 ekintza. Beste autonomia erkidego batzuekin ekintza edo proiektu espezifikoetan parte hartzea eta lankidetzan aritzea (autonomia erkidegoen topaketak; Akitania, EAE eta Nafarroaren arteko hitzarmenen bidez jarduera espezifikoak bultzatzea; hitzarmenak sinatzea mugakide diren edo interes komunak dituzten beste autonomia erkidego batzuekin). | Egindako ekintzen kopurua | 2021-2024 | | 3 |
| 4.5.4 ekintza. Espainiako lankidetzarekin baterako jardueretan izaniko lankidetza, bereziki lankidetza teknikokoa | Elkarrekin egindako ekintzen kopurua | 2021-2024 | — | 4 |
| 4.5.5 ekintza. Nafarroako toki erakundeekin informazioa trukatzea eta jarduerak elkarrekin egitea, bai eta aholkularitza ematea ere, Iruñeko Udalari bereziki | Iruñeko Udalarekin urtean izaniko bilera kopurua | 2021-2024 | — | 2 |
| | Urtean harremanen bat izaniko toki erakundeen kopurua | 2021-2024 | — | 5 |
| **4.6 EMAITZA. Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua eztabaidarako eta kontzertaziorako gunea da** | **Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren gogobetetze maila kontseiluaren funtzionamenduarekin** | 2024 | 6 | 10etik 9 |
| 4.6.1 ekintza. Batzorde iraunkorra aktibatzea, Nafarroako lankidetzari buruzko segimendu eta eztabaida organo gisa | Urtean egindako bilera kopurua | 2021-2024 | | 4 |
| 4.6.2 ekintza. Garapenerako hezkuntzarako lantaldea aktibatzea | Urtean egindako bilera kopurua | 2021-2024 | | 4 |
| 4.6.3 ekintza. Osasun lankidetzarako lantaldea aktibatzea | Urtean egindako bilera kopurua | 2021-2024 | | 4 |
| 4.6.4 ekintza. Nafarroako lankidetzaren gai estrategikoak eztabaidatzea Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren osoko bilkuran. | Gai estrategikoak jorratu dituzten bileren kopurua | 2021-2024 | | 3 |

| HELBURU NAGUSIAREN INPAKTU ADIERAZLEAK | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | **Inpaktu adierazleak** | **Urtea** | **Oinarrizko lerroa** | **Jomuga** |
| **Nafarroako lankidetzaren inpaktua eta kalitatea areagotzea espezializazioaren bidez, baliabideak optimizatuz eta eraginkortasuna hobetuz giza garapen jasangarriaren ikuspegitik.** | **Nafarroako garapenerako lankidetzaren onuradun (zuzenen) kopurua (G/E)** | 2024 | 1.348.920<br>618.635 H<br>730.285 M | 1.500.000 |
| | **Garapenerako hezkuntzaren esku hartze bakoitzaren batez besteko finantzaketa zenbatekoa** | 2024 | 25.122 € | 30.000 € |
| | **Sentsibilizazio ekintza bakoitzaren batez besteko finantzaketa zenbatekoa** | 2024 | 17.539 € | 30.000 € |
| | **Nafarroan sentsibilizazio ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua** | 2024 | 59.222<br>23.965 G<br>35.257 E | 60.000 |
| | **Nafarroan garapenerako hezkuntza ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua** | 2024 | 41.237<br>19.611 G<br>21.626 E | 45.000 |
| | **Esku hartze ekonomiko eta sozial bakoitzeko finantzaketaren batez besteko zenbatekoa (I. ardatzeko esku hartzeak barne)** | 2024 | 105.000 € | 125.000 € |
| | **Nafarroako garapenerako lankidetzak lehenetsitako herrialdeei finantzaturiko batez besteko zenbatekoa.** | 2024 | 111.709 € | 125.000 € |
| | **Nafarroako lankidetzako eragileen gogobetetze maila, planean ezarritako Nafarroako lankidetzako esku hartzeei dagokienez.** | 2024 | 7 | 8 |
| | **Planak Nafarroako lankidetzaren kalitatea hobetzeko eskainiriko laguntza, eraginkortasunari dagokionez.** | 2024 | % 60 | % 80 |
| | **Garapenerako laguntza ofizialak *per capita* (Nafarroa)** | 2024 | 13,20€ | 20€ |
| | **Nafarroan egikaritutako aurrekontuan garapenerako laguntza ofizialek izaniko bilakaera III. Plan Zuzentzailean.** | 2024 | % 0,28 | % 0,6 |

# Erreferentziako bibliografia

## Nafarroako Gobernuaren dokumentuak


Nafarroako Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailea 2011-2014.

Nafarroako Lankidetzarako II. Plan Zuzentzailearen ebaluazio kualitatiboaren txostena.

Nafarroako Lankidetzarako II. Plan Zuzentzailearen ebaluazio kuantitatiboaren txostena.

Kudeaketa Memoria (2011-2019).

Fronte Polisarioarekin lankidetzan aritzeko Protokoloa.

2030 Agendari buruzko Departamentuarteko Batzordea sortzeko gobernu akordioa.

Garapenerako Hezkuntzaren estrategia.

Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen diseinua ebaluatzea eta segimendu sistema bat ezartzea haren ebaluazioa egiteko. Errealitate Sozialaren Behatokia. 2020


## Beste administrazio publiko batzuen dokumentu estrategikoak eta operatiboak


Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia, Espainiako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2013-2016.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia, Espainiako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailea 2018-2021.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia, Espainiako Lankidetzaren Ekintza Humanitarioko Estrategia 2019-2026.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Andaluziako Agentzia, Garapenerako Lankidetzaren Andaluziako Plana 2015-2018.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Andaluziako Agentzia, Garapenerako Lankidetzaren Andaluziako Plana 2019-2023.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Andaluziako Agentzia, Garapenerako Lankidetzaren Andaluziako Plana 2019-2022.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Kataluniako Agentzia, Garapenerako Lankidetzaren Plana 2015-2018.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Garapenerako Lankidetzaren III. Gida Plana.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Ekintza Humanitariorako Estrategia 2018-2023.

Bizkaiko Foru Aldundia, Bizkaiko Lankidetzako III. Gida Plana, 2017-2020.

Asturiasko Printzerriko Gobernua, Garapenerako Lankidetzarako Gida Plana 2013-2016.

Extremadurako Gobernua, Extremadurako Lankidetzarako Plan Nagusia 2014-2017.

Garapen Jasangarrirako Politiken Zuzendaritza Nagusia, Espainiako Lankidetzak COVID-19aren krisiari emaniko baterako erantzun estrategia. 2020.

## Erreferentziako dokumentuak:

ACSUR, Las Segovias (2010): *Género en la Educación para el Desarrollo. Abriendo la mirada a la interculturalidad, los pueblos indígenas, la soberanía alimentaria y la educación para la paz*, Madril/Bilbo: ACSUR/Hegoa.

Amnistia Internazionala (2017): Informe Anual 2016-2017, hemendik hartua: https://www.amnesty.org/es/documents/pol10/4800/2017/es/

AWID (2017) «HRC35: Keeping feminist demands on the table at the Human Rights Council»; eskuragarri hemen: https://www.awid.org/es/node/7340

Celorio, Gema eta Alicia López de Munain (2007): *Diccionario de Educación para el desarrollo*, Bilbo: Hegoa.

CICR (2016) Migraciones Forzadas #51, hemendik berreskuratua: http://www.fmreview.org/sites/fmr/files/FMRdownloads/es/destino-europa/RMF51_destino_europa.pdf

Espainiako GGKEen Koordinakundea (2016): *La Ayuda Oficial al Desarrollo en 2016 Análisis y Valoración de la Coordinadora de ONG para el Desarrollo*; hemendik hartua: http://coordinadoraongd.org/wp-content/uploads/2016/04.

Nafarroako GGKEen Koordinakundea (2015), *Estudio sobre la situación de las Organizaciones de la CONGDN entre 2010-2014.*

Duffield, Mark (2013) Development, Security and Unending War (2nd Edition), Londres: Zed.

FAO (2017) *El estado de la seguridad alimentaria y la nutrición en el mundo 2017*, hemendik berreskuratua: http://www.fao.org/3/a-I7695s.pdf

Global Taskforce (2015): «All SDGs are local»; hemendik berreskuratua: http://www.uclg.org/sites/default/files/post_2015_declaration.pdf.

González, Lara (2005): *La evaluación en la gestión de proyectos y programas de desarrollo. Una propuesta integradora en agentes, modelos y herramientas*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Guterres, Antonio (2017) Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiaren aurreko hitzaldia; eskuragarri hemen: https://www.un.org/sg/es/content/sg/speeches/2017-09-19/sgs-ga-address

Human Rights Watch (2017): World Report 2017; hemendik berreskuratua: https://www.hrw.org/sites/default/files/world_report_download/wr2017-web.pdf

Medina Rivilla, A. (koord.) (2015). *Innovación de la Educación y la Docencia*. Madril: Editorial Universitaria Ramón Areces.

Millán, Natalia, Guillermo Santander, Pablo Aguirre eta Anabel Garrido (2015): *La coherencia de políticas para el desarrollo en España. Mecanismos, actores y procesos*; hemendik hartua: www.2015ymas.org/IMG/pdf/Estudio_CPD.pdf

Mineo, Bárbara (2016): «La urgente necesidad de un giro humanitario»; hemendik hartua: http://coordinadoraongd.org/2016/05/la-urgente-necesidad-giro-humanitario/

Murgialday, Clara, Norma Vázquez eta Lara González (2008): *Un paso más: Evaluación del impacto de género*, Bartzelona: Cooperacció.

Nazio Batuak (1979): Emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa; hemendik berreskuratua: http://www.un.org/womenwatch/ daw/cedaw/text/sconvention.htm

Nazio Batuak (1987): Ingurumenaren eta Garapenaren Mundu Batzordearen txostena, «Nuestro futuro común»; hemendik hartua: http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/42/427.

Nazio Batuak (1995): Beijingeko Adierazpena eta Ekintza Plataforma; hemendik hartua: http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/BDPfA%20S.pdf

Nazio Batuak (2015a): Milurtekoko Garapenaren Helburuak, 2015eko txostena; hemendik berreskuratua: http://www.un.org/es/millenniumgoals/pdf/2015/mdg-report-2015_spanish.pdf

Nazio Batuak (2015b): *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible*; hemendik berreskuratua: http://www.pensandoelmundo.com/transformar-nuestro-mundo-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/

ELGE (1991): *DAC Principles for Evaluation of Development Assistance*, Paris: ELGE.

ELGE (2008): Parisko Adierazpena, garapenerako laguntzen eraginkortasunari eta Accrako Ekintza Programari buruz, Paris: ELGE.

NBE Emakumeak (2015) Emakumeen aurrerabidea munduan 2015-2016, hemendik berreskuratua: http://progress.unwomen.org/en/2015/pdf/UNW_progressreport_es_10_12.pdf

Ortega, Mª Luz (2007): «Educación para el desarrollo: Evolución» *in* Celorio, Gema eta Alicia López de Munain (2007): Garapenerako Hezkuntzaren hiztegia, Bilbo: Hegoa.

Otxotorena, Mikel (2009): *Perspectiva de género con los hombres en la Cooperación al Desarrollo*; hemendik berreskuratua: http://www.berdingune.euskadi.eus/contenidos/informacion/

material/es_gizonduz/adjuntos/7_perspectiva_de_genero_con_los_hombres_en-procesos_de_cooperacion_al_desarrollo.pdf

Oxfam (2015): *Women, Peace And Security: Keeping the Promise. How to revitalize the agenda 15 years after UNSCR 1325*; hemendik berreskuratua: http://oxfamunwrapped.ca/file/bn-women-peace-security-unscr1325-030915-en pdf

NBGP (2016), Giza Garapenaren gaineko Txostena 2016; hemendik berreskuratua: http://hdr.undp.org/sites/default/files/HDR2016_SP_Overview_Web.pdf

Redclift, Michael y Marco Grasso (2013) *Handbook on Climate Change and Human Security*, Cheltenham: Edward Elgar.

Schuler, Margaret (1997) «Los derechos de las mujeres son derechos humanos: la agenda internacional del empoderamiento», *in* León, Magdalena *Poder y empoderamiento de las mujeres,* Bogotá: Fondo de Documentación Mujer y Género

Silvestre, María, Raquel Royo eta Ester Escudero (koord.) (2014): *El empoderamiento de las mujeres como estrategia de intervención social*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Unceta, Koldo (zuz.) (2015) *Coherencia de Políticas para el Desarrollo en Euskadi: diagnóstico y propuestas*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

UNESCO (2015) *La educación para todos, 2010-2015: logros y desafíos*, hemendik berreskuratua: http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002324/232435s.pdf

Zeitlin, June eta Doris Mpoumou (2004): *No hay seguridad humana sin igualdad de género,* New York: WEDO.

# Irudien eta taulen aurkibidea


| | | |
|---|---|---|
| 1. IRUDIA. | Nazioarteko garapenerako lankidetzarako egungo arkitekturaren dokumentuak | 14 |
| 2. IRUDIA. | 2030 Agendako 5 P-ak eta garapen jasangarrirako 17 helburuak | 15 |
| 3. IRUDIA. | Parisko Adierazpenaren printzipioak | 18 |
| 4. IRUDIA. | Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizialen bilakaera II. Plan Zuzentzailean | 22 |
| 5. IRUDIA. | Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizialen urte arteko aldakuntzaren bilakaera eta Nafarroako Gobernuaren gastu aurrekontuarena | 23 |
| 6 IRUDIA. | Nafarroako garapenerako laguntza ofizialen banaketa eskualdeen arabera, 2 011-2019 aldia | 26 |
| 7. IRUDIA. | Giza garapen jasangarriaren osagaiak, nbgpren giza garapenaren 2016ko txostenaren arabera | 34 |
| 8. IRUDIA. | Nafarroako lankidetzaren printzipioak | 35 |
| 9. IRUDIA. | Espezializazio geografiko eta sektoriala | 48 |
| 10. IRUDIA. | Ekintza humanitarioa hobetzea | 53 |
| 11. IRUDIA. | Garapenerako hezkuntza hobetzea | 55 |
| 12. IRUDIA. | Indartze instituzionala | 58 |
| 13. IRUDIA. | Nafarroako lankidetzaren tresnak | 62 |
| 14. IRUDIA. | Nafarroako lankidetzako eragileak | 69 |

| | | |
|---|---|---|
| 1. TAULA. | Garapenerako laguntza ofizialen bilakaera II. Plan Zuzentzailean | 23 |
| 2. TAULA. | Garapenerako laguntza ofizialetako gastuaren banaketa entitateen arabera, 2011-2019 aldia | 24 |
| 3. TAULA. | Garapenerako laguntza ofizialetako Nafarroako gastuaren banaketa 2011-2019 aldian | 25 |
| 4. TAULA. | Nafarroako garapenerako laguntza ofizialen banaketa sektorearen arabera, 2011-2019 aldia | 27 |
| 5. TAULA. | I. eta II. Plan Zuzentzaileen adierazle orokorren arteko konparazioa | 28 |
| 6. TAULA. | Lankidetza ekonomikorako lehenetsitako herrialdeak. | 42 |
| 7. TAULA. | Gutxi gorabeherako aurrekontu banaketa, lurraldeen, modalitatearen eta jarduera eta tresna motaren arabera | 79 |

III PLAN DIRECTOR
DE LA COOPERACIÓN NAVARRA
2021-2024

Nafarroako Gobernua
Eskubide Sozialetako Departamentua
Gobierno de Navarra
Departamento de Derechos Sociales

AGENDA 2030
17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS